

**ENERGIA ETA MEATZARITZA AURREZTEKO ETA
GARATZEKO ERAKUNDEAK (CADEM) DEITUTAKO
LEHIAKETAREN KLAUSULA ADMINISTRATIBO
BEREZIEN ETA BALDINTZA TEKNIKOEN PLEGUA,
PROZUDURA IREKIAZ ESLEITZEKO HONAKO
KONTRATU HAU: BIZIKLETA HIRI EREMUAN
ERABILTZEKO IKASTAROAK EMATEA**

ESPEDIENTE ZENB.:
CAD/13-003

PROZEDURA IREKIA

Bilbon, 2013ko ekainaren 20an
Ángel Garrote Ruiz jn.
CADEMeko presidenteordea

KARATULA

ADJUDIKATZEKO ERA: Lehiaketa irekia.

ESPEDIENTE ZENB.: CAD/13-003

A. KONTRATUAREN XEDEA

Prestakuntza-ikastaroak ematea, hiri eta herrietan bizikleta garraiobide moduan erabiltzen dutenentzat, Euskal Autonomia Erkidegoko edozein udalerritan eta egunetan (larunbatak eta igandeak barne) erabiltzaile horien artean praktika onak sustatze aldera.

Kontratua hiru (3) lotetan banatzen da, EAEko lurralde historiko bakoitzerako bana:

1. lotea: Bizkaia
2. lotea: Gipuzkoa
3. lotea: Araba

Lote horitako batentzat, birentzat edo hirurentzat eskaintza aurkeztu ahal dute enpresaburuek.

B. ORGANO KONTRATATZAILEA

CADEM, honako helbide hau duena: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo..

- o I.F.Z.: A-01025741
- o Arduradun teknikaria: Juan Manuel Fernández
- o Telefonoa/faxa/posta elektronikoa: 94-4035674 / 94-4035699 / jmfernandez@eve.es
- o Kontratatzailearen profila: www.eve.es

C. LIZITAZIOAREN GEHIENENKO PREZIOA ETA AURREIKUSITAKO KONTRATUAREN BALIOA

- Prestakuntza ematen zaion ikasleko gehieneko prezio unitarioa lote bakoitzean hirurogei (60 €) euro izango da (BEZa gabe).

- Aurreikusitako kontratuaren balioa: 40.000 euro (BEZa gabe).

1. Lotea - Bizkaia: 20.000 euro (BEZa gabe)
2. Lotea – Gipuzkoa: 12.000 euro (BEZa gabe)
3. Lotea – Araba: 8.000 euro (BEZa gabe)

Baldintza horiek betetzen ez dituzten eskaintza guztiak baztertu egingo dira.

D. IZAPIDEA

Ohikoa.

E. PROPOSAMENAK JASOTZEKO EPEA

Eskaintzak edo proposamenak 2013ko uztailaren 12ko 12:00ak arte jasoko dira.

F. PROPOSAMENAK AURKEZTEKO LEKUA

Proposamenak CADEMi zuzenduak aurkeztuko dira, Garraio Unitatera, honako helbide honetan: Bizkaia plaza eraikina. Urkixo zumarkalea, 36 – 1. solairua. 48011 Bilbo.

G. BEHIN-BEHINEKO BERMEA

Ez dagokio.

H. BEHIN BETIKO BERMEA

Ez dagokio.

I. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Ez dagokio.

J. ZERBITZUA GAUZATZEKO LEKUA ETA EPEA

- Epea: Zerbitzua prestatzeko epea kontratua sinatzen den egunetik kontatzen hasiko da eta **2013ko abenduaren 31** arte luzatuko da, edo lote bakoitzerako aurreikusitako gehieneko aurrekontua (1. lotea: 20.000 euro; 2. lotea: 12.000 euro; 3. lotea: 8.000 euro, BEZa gabe) amaitu arte, baldin eta aurrekontua lehenago agortzen bada.

- Lekua: CADEMek aukeratuko duen EAEko edozein leku.

- Asteko eguna: CADEMek aukeratuko duen edozein egun, larunbatak, igandeak eta jaiegunak barne.

K. BERMEEI DAGOZKIEN EPEAK

Ez dagokio.

L. PUBLIZITATEAREN GASTUAK

Ez dagokio.

M. ALDAGAIEN ONARPENA

Ez dagokio.

N. KAUDIMEN EKONOMIKOA, FINANTZARIOA ETA TEKNIKOA

Plegu honen 8.5 klausulan adierazten den dokumentazioa aurkeztu behar da.

O. ADJUDIKATZEKO IRIZPIDEAK

Esleipena erabakitzeko erabiliko diren irizpide orokorrak hauexek dira:

Irizpidea	Deskribapena	Puntuak
B gutun-azala. Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideak		
1	Giza baliabideak	20
2	Metodologia	15
3	Hobekuntzak	5
C gutun-azala. Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak		
4	Prestatutako ikasle bakoitzeko prezio unitarioa	60
GUZTIRA		100

Prezio unitarioei lotutako irizpideak balioesteko formula hauxe da:

IKASLEAREN PREZIO UNITARIOA
Gehienez 60 puntu, 100 punturen aldean

Enpresa lizitatzaileraren puntuak = $\frac{\text{Unitateko eskaintako prezio txikiena}}{\text{Enpresak eskaintako unitateko prezioa}}$ x 60 puntu

P. ZIGORTZEA

Plegu honetan aurreikusten direnak.

Q. LUZAPENA

Ez dagokio.

R. LANAK ZATIKA JASOTZEA

Ez dagokio.

S. PREZIOAREN ORDAINKETA

Kontratuaren prezioaren ordainketak hilabetea amaitutakoan egingo dira.

Hil bakoitzaren amaieran, enpresa esleipendunak hil horretan emandako ikastaroei dagokien faktura bidaliko dio CADEMi. Horrekin batera, emandako ikastaroen inguruko txostenak.

Zatikako ordainketa bakoitza hogeita hamar (30) egun naturaleko epean egingo da, esleipendunak dagokion faktura egin eta aurkezten denetik kontatzen hasita, betiere CADEMek txostenak eta faktura onetsitakoan, ordaindu egingo da.

Esleipendunak eskubidea izango du emandako ikastaroengatik kobratzeko, adostutako prezio unitarioaren arabera eta kontratuan azaltzen denari jarraiki. Horretaz gain, hitzartuko diren aldaketak eta CADEMek idatziz emango dituen aginduak ere kontuan hartuko dira..

T. HIZKUNTZA BALDINTZAK

Kontratu hau Euskal Autonomia Erkidegoko 6. artikuluan eta azaroaren 24ko 10/1982 Oinarrizko Legean (euskararen erabilera arautzekoa) eta hura garatzen duen araudian xedatutako hizkuntza ofizialtasun bikoitzaren mende dago.

Bi hizkuntza ofizialak erabiltzea kontratuaren gauzatze baldintzetako bat da. Hala, bada, betetzen ez bada, kontratu honetako edozein klausula ez betetzeagatik aurreikusi diren ondorioak aplikatuko dira; ez bada, gauzatu beharreko kontratuak berezko dituen ezaugarriek eskatu egiten dutela nahitaez beste hizkuntza bat edo batzuk modu eskusiboan erabiltzea. Dena den, neurri horrek kontratuaren baldintza orrian edo pleguan agertu beharko du.

U. KONTU FISKALEI, INGURUMENARI, EMAKUME ETA GIZONEN ARTEKO BERDINTASUNARI, ENPLEGUA BABESTEARI, LANEKO BALDINTZEI ETA LANEKO ARRISKUAK PREBENITZEARI BURUZKO INFORMAZIOA

Kontratu honetan interesa duten enpresek fiskaltasunari buruzko informazioa lor dezakete Foru Aldundietan.

Eusko Jaurlaritzaren Justizia, Enplegua eta Gizarte Segurantza saileko Lana eta Gizarte Segurantza Zuzendaritzan egongo da enplegua babesteari, laneko baldintzei nahiz laneko baldintzei buruzko gaietan indarrean diren xedapenei buruzko informazioa. Horiek guztiak gehi kontratuaren agirietan aurreikusi klausula gehigarriak aplikatzekoak izango dira kontratua exekutatzeko orduan.

Eusko Jaurlaritzako Ingurumena eta Lurraldearen Antolamendua saileko Ingurumen sailburuordetzan egongo dira –IHOBE sozietate publikoaren bidez– kontratua exekutatzeko aplikatzekoak diren ingurumen auziei buruzko indarreko xedapenen informazioa eta kontratuko agirietan aurreikusi klausula gehigarriak.

Era berean, EMAKUNDE-Emakumearen Euskal Erakundean aurkituko dute emakumeen eta gizonen arteko berdintasun gaietan indarrean diren eta kontratua exekutatzeko orduan aplikagarriak diren xedapenei buruzko informazioa (bestak beste, otsailaren 18ko 4/2005 Legea, Gizonen eta Emakumeen arteko Berdintasunaz diharduena eta martxoaren 22ko 3/2007 Lege organikoa, Gizon eta Emakumeen arteko Benetako Berdintasuna lortzeari buruzkoa den legea, hain zuzen ere).

OINARRIZKO BALDINTZAK

1. ARAUBIDE JURIDIKOA

1.1. Kontratuaren araubide juridikoa:

- Oinarrizko Baldintzen Plegu honetan eta bere karatulan zehaztutakoa, baita Zehaztapan Teknikoen Txostenean jasotzen dena ere. Horrekin batera, Energia eta Meatzaritza Aurrezteko eta Garatzeko Erakundeak (“**CADEM**”) onartutako Kontratatzeko Barne Jarraibideetan adierazitakoa (“**KABI**”) eta Kontratatzaillearen Eskakizuna atalean argitaratua (www.eve.es) eta esleipendunarekin sinatuko den kontratuan jasoko diren baldintzekin eta itunekin bat etorriz. Hala ere, Oinarrizko Baldintzen Plegu honetan jasotzen ez den gainerako guztiari dagokionez, TRSPKLen I Liburukiko V. Tituluan xedatutako arauak aplikatuko dira.
- Azaroaren 14ko 3/2011 Errege Dekretu Legegilea, Sektore Publikoko, Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legearen Testu Bategilea (“**TRSPKL**”) onartzen duena. Plegu honen klausuletan adierazten diren gaiei dagokienez, soil-soilik.
- Urriaren 12ko 1098/2001 Errege Dekretuaren arabera, Administrazio Publikoen Kontratuen Legearen Araubide Orokorra onartzen duena (aurrerantzean “**HAKLEO**”), aurreko puntuan azaldutako gaiei dagokienez.
- Zuzenbide Pribatuaren arauak aplikagarriak izango dira kontratuaren interpretazio, ondorio, betetze eta amaierari doazkien gaiak ebazteko.

1.2. Lanak egiten arituko diren langileei dagokienez, enpresaburu kontratatzaileek bete beharko dituzte indarrean dagoen lan eta gizarte legeria.

1.3. Kontratuaren edozein alderditako ezjakintasunak edo bertan bildutako dokumentuak eta eranskinak edo itundutakoa gauzatzean zerikusia izan dezakeen Administrazioak xedatutako arau, plegu eta aginduen gaineko ezjakintasunak ez du kontratista edo enpresaburua salbuetsiko kontratua betetzeko obligaziotik.

2. KONTRATUAREN HELBURUA

Kontratuaren helburua Plegu honen Karatularen “**A**” **ATALEAN** adierazia da.

Hori guztia baldintza teknikoaren arabera, Zehaztapan Teknikoen Txostenean adierazten dena. Plegu honetan jasoko dena, 5. eranskina, eta betetzeko eska daitezke. Beraz, aipatutako proiektua kontratuan sartuko da eta alde guztiek bete beharko dute.

Pleguaren karatulan adierazten den bezala, bertan aipatzen diren lote bakoitzaren lanak solte edo bere osotasunean esleitu edo kontratatu ahal izango dira. Nolanahi ere, lizitatzailleek lote batentzat, birentzat edo denontzat

eskaintza aurkezteko aukera dute.

3. UNITATEKO GEHIENEO PREZIOA, AURREIKUSITAKO BALIOA ETA KONTRATUAREN PREZIOA

a) Kontratu honen lanak gauzatzeko gehieneko prezioa Plegu honen karatulako **“C” ATALEAN** adierazitakoa izango da.

b) Aurreikusitako balioa Plegu honen karatulako **“C” ATALEAN** azaltzen da, aurreikusitako balioa kalkulatzeko, TRSPKLen 88. artikulua xedatutakoa kontuan hartu da, BEZa gabe.

c) Kontratuaren prezioa esleipenaren ondorioz aterako dena izango da, eta diru-sail independente gisa sartuko du BEZa.

Kontratuaren prezioan gainerako zergak, tasak eta era guztietako kanon aplikagarriak sartuta daudela ulertuko da, bai eta Plegu honetan bildutako betebeharrak betetzeak kontratistari ekarri ahal dizkion gastu guztiak ere (gastu orokorrak, finantzarioak, onurak, aseguruak, garraioa eta joan-etorriak, berarentzat lan egiten duen pertsonal teknikoaren ordainsariak, bisak, etab.).

d) Enpresa esleipendunak ordainduko ditu gainerako gastuak, kontratuan azaltzen diren lanak behar bezala egiteko, eta beraz, CADEMek ez ditu ordainduko, 5. eranskinean ageri den Zehaztapen Teknikoen Txostenaren arabera.

4. PREZIOEN BERRIKUSPENA

Karatularen **“I” ATALEAN** zehazten dena beteko da.

5. GAUZATZEKO EPEA

5.1. Gauzatzeko epea Plegu honen Karatularen **“J” ATALEAN** adierazitakoa izango da.

Ezarritako epeak betetzeko behar diren aldian aldiko epeak eskaintzan ezarriko dira edo CADEMek lan programan onartuko dituenak izango dira.

5.2. Zehaztapen Teknikoen Txostenean lanak egiteko epeak laburtzen edo jardueren ordenamendurako zatikako epeak ezarri gero, ezinbestean bete beharko lirarteke, horrela eskaintzen edo ezartzen badira, hurrenez hurren.

5.3. Karatularen **“Q” ATALEAN** hala aurreikusten baldin bada, kontratua amaitutakoan, alde guztien oniritziarekin, kontratua luza daiteke.

6. ADJUDIKATZEKO ERA

6.1 CADEMek kontratatzeko dituen barne-jarraibideak edo arauak (IIC) aplikatuko zaizkio kontratu honi esleitzeko orduan.

Kontratua prozedura irekiaren bidez esleituko da, eta esleipena honako fase hauei jarraituz egingo da:

(i) Lehen fasean (“*Eskaintzen aurkezpena*”), interesatutako lizitatzailleek dokumentazio orokorra (A gutun-azala) eskaintza ekonomikoak (B gutun-azala) eta teknikoak (C gutun-azala) aurkeztu ahal izango dituzte;

(ii) Bigarren fasean (“*Kontratistaren hautaketa*”) lizitatzailleek aurkeztutako eskaintzen aztertu ondoren, CADEMek kontratua formalizatzeko lizitatzaillea hautatuko du; eta

(iii) Hirugarren fasean (“*Formalizazioa*”), CADEMek eta hautatutako lizitatzailleak kontratua sinatuko dute.

6.2 CADEMek eta kontratistak men egingo diote informazioaren konfidentzialtasuna babesteko obligazioari, KABIren 6.(d) atalean ezarritako moduan.

6.3 Kontratazio-organoa “**B**” **ATALEAN** azaldutakoa izango da.

6.4 Kontratazio-organoari laguntzeko, kontratazio-mahaia edo organo baliokideren bat era daiteke, eta haxe arduratuko da parte-hartze eskaerak kalifikatu eta eskaintzak baloratzeaz.

7. PROPOSAMENAK AURKEZTEA

7.1 Proposamenak aurkezteko epea 2013ko uztailaren 12ko 12:00ak arte izango da.

7.2 Proposamenak honako helbide honetara bidaliko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36. 1. solairua. 48011 Bilbo.

7.3 Lizitatzailleak postaz bidaltzen badu eskaintza, bidalketa posta-bulegoan zer egunetan egin zuen kreditatu beharko du, eta kontratazio-organoari jakinarazi beharko dio, egun bertan, eskaintza bidali duela. Ez badira bi baldintza horiek betetzen edo bidali izanaren jakinarazpena baldintza honetan adierazitako gehienezko epea igarota egiten bada, ez da eskaintza onartuko.

7.4 Espainiako nahiz atzerriko pertsona fisiko nahiz juridikoek aurkez ditzakete proposamenak, baldin eta jarduteko gaitasun osoa badute eta kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa kreditatzen badute. Halaber, ezaugarri hori kredita dezakete zerbitzu-enpresatzat sailkatuta daudela egiaztatzen badute, Eusko Jaurlaritzak edo Estatuko

administrazio-kontratueterako kontsulta-batzordeak emandako ebazpen bidez. Ildo horretatik, karatulako “**N**” **ATALA** bete behar dute proposamen-egileek.

- 7.5 Proposamenak aurkez ditzakete, halaber, enpresari-taldeek, aldi baterako elkarteak osatzen badituzte, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 59. artikulua araututako moduan. Enpresa-taldeko enpresariak beren jardute-gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala kreditatu behar dute agiri honetako baldintzek xedatu moduan, eta, horrez gain, agiri pribatu batean adierazi beharko dituzte beren izenak eta egoera profesionala, zer-nolako partaidetza duten elkartean eta, kontratua indarrean den bitartean, zer pertsona edo entitatek ordezkaturiko dituen, ordezkapen-ahalmen osoz, CADEMen aurrean. Enpresari horiek guztiek aldi-baterako enpresa-elkarte gisa eratzeko konpromisoa hartu beharko dute, HAKLEOko 24. artikulua xedatutako moduan. Enpresa-elkarteko kide diren enpresetako ordezkari guztiek izenpetu behar dute adierazitako agiria. Parte hartzeko zerbitzu-enpresa izatea eskatuko balitz, ezinbestekoa izango da, sailkapenak metatu ahal izateko (HAKLEOko 52. artikulua), aldi baterako elkarteko enpresa guztiek izatea beren esku zerbitzu-enpresen sailkapena.
- 7.6 Lizitatuzaileen proposamenetan adierazten diren lizitazio-tipoak, haiek kontratuaren esleipenerako zenbateko zehatz eta jakinetan adierazten diren heinean, bere baitan jasoko dituzte, indarreko araubideari jarraituz, haiei aplikatzekoak diren zerga guztiak. Horren salbuespena BEZA izango da, hura aparteko kontu-sailtzat jasoko baita.
- 7.7 Interesatuak, hala nahiko balute, intereseko dokumentazioa azter dezakete, CADEM erakundeko kontratatuzailearen profilean lizitazio hau argitaratzean adierazten den lekuan.
- 7.8 Lizitatuzaileek ezingo dute proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako karatulako “**M**” **ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte.
- Lizitatuzaileek ezingo dute beste enpresa batzuekin proposamenik izenpetu, baldin eta aurrez banakako enpresari gisa proposamenik egin badute (xedapen horren salbuespen bakarra izango da lote bat baino gehiago izatea eta proposamenak lote bat baino gehiagorako aurkeztea). Printzipio hori urratuz gero, ez dira onartuko enpresariak egindako proposamen guztiak, eta, ildo horretatik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen 146. artikulua arautzen duena beteko da. Adierazitakoa betetzekoa izango bada ere, lizitatuzaileek aukera izango dute, kontratuak lote bat baino gehiago baditu, bai kontratu-xede osorako eskaintza bat egiteko (eskaintza hori banakatu egingo da lote bakoitzerako) edo lote bat edo batzuetarako eskaintzak egiteko.
- 7.9 Dokumentazioa euskaraz edo gaztelaniaz idatzita aurkeztu behar da. Atzerriko enpresek hizkuntza horietakoren batera itzulita aurkeztu behar dute dokumentazioa.

- 7.10 Eskaintzarik eginez gero, enpresariak baldintzarik gabe onartuko dituzte baldintza-orri edo Plegu honetako klausula guztiak, eta eskaintza horri ardurapeko adierazpen bat erantsiko diete, CADEMekin kontratatzeko baldintza guztiak betetzen dituztela esanez.
- 7.11 Izaera konfidentziala. Beharrezkotzat jotzen baldin bada, enpresa lizitatuak, sekretu teknikoak edo komertzialak direla eta, izaera konfidentzialtzat hartzen dituen informazioak eta alderdiak adierazi ahal izango ditu, VI. eranskinean agertzen den ereduaren arabera, eta hori egiteko arrazoiak azalduko ditu. Nolanahi ere, eskaintza ekonomikoak ez du izaera hori.
- 7.12 Lehiaketatik kanpo geratuko dira, CADEMekin behar bezala arrazoitu eta gero, honako egoera honetan leudekeen proposamenak:
- Proposamenak epe kanpo aurkeztea.
 - Eskatutako gaitasun profesional edo enpresariala ez aurkeztea.
 - Plegu honetan eskatzen den kaudimen ekonomiko, finantzario, teknika edo profesionala ez aurkeztea.
 - Proposamen ekonomiko batzuk aurkeztea, bakarka edo aldi baterako beste enpresa lizitatuak batzuekin batera.
 - Plegu honetan edo zehaztapen teknikoaren pleguan eskatzen diren baldintzak ez betetzea.
 - SPKLeke eskatzen dituen baldintzak ez betetzea.

8 PROPOSAMENEN EDUKIA

- 8.1 Lizitatuak hiru gutun-azal aurkeztuko dituzte, eta, horietan guztietan, datu hauek adieraziko dituzte: lizitatuaren izen-abizenak edo enpresaren izena; gaia adierazteko, espedientearen erreferentzia-zenbakia adieraziko dute; eta, kontratu-xede adierazteko, baldintza-orri honetako karatularen "A" **ATALEAN** adierazitakoa zehaztuko dute.
- 8.2 Hiru gutun-azalak helbide honetara bidaliko dira: Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36 - 1. solairua, 48011 BILBAO. Baldintza-orri honetako karatularen "E" **ATALEAN** adierazitako epean bidali behar dute, eta/edo, hala adierazten bada, lizitazio-iragarkian zehaztutako epean.
- "Gaiari" dagokion epigrafean, hau adieraziko da gutun-azal bakoitzean:
- **"A" gutun-azala:** "Lizitazio-espedientearen zenbakia: Dokumentazio administratiboa"
 - **"B" gutun-azala:** "Lizitazio-espedientearen zenbakia: Iritzi bidez ebaluatu ahal diren irizpideak"
 - **"C" gutun-azala:** "Lizitazio-espedientearen zenbakia: Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak"
- 8.3 Baldintza-orri honetako 8.5. atalean zehaztutako agiriak jasoko ditu "A" gutun-azalak, "B" gutun-azalak 8.6. atalean zehaztutakoa eta, azkenik, "C" gutun-azalak 8.7. atalean zehaztutakoa.

8.4 Proposamenak entregatuz gero, lehiatzaileek onartu egin beharko dute lizitazioa, baldin eta esleipendun suertatzen badira. Proposamena aurkeztu ondoren, ezingo da hura erretiratu, baldin eta CADEMek uste badu badagoela horretarako arrazoi justifikaturik.

8.5 “A” gutun-azala: Dokumentazio administratiboa.

- CADEMeko sarrera-erregistroan aurkeztuko da dokumentazio hori, gutun-azal itxi baten barruan. Gutun-azalean, espediente-zenbakia adieraziko da, eta, horrez gain, baldintza-orri honen karatulako **"A" ATALEAN** adierazitako deskribapena idatziko da, “Dokumentazio orokorra” dela iragarritz.
- Dokumentazio administratiboaren atalean, Eusko Jaurlaritzako kontratisten erregistroan erregistratuta dauden lizitatuak eta Estatuko lizitatuak eta enpresa sailkatuen erregistro ofizialean erregistratuta daudenek nahikoa izango dute erregistratuta izatearen ziurtagiriaren kopia aurkeztea. Horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztu beharko dute, erregistroan adierazitako datuak baliozkoak direla eta indarrean daudela bermatuz, eta 6. eranskina behar bezala beteta, eta 10. eranskina behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztu beharko ditu.

Adierazitako erregistroetan erregistratuta ez dauden enpresariak, sarrera-erregistroa agertu, eta agiri hauek erantsi beharko dituzte “A” gutun-azalean:

- a. Proposamena aurkezten duen pertsonaren nortasun agiri nazionala edo haren baliokide den agiri fede-emailea, eta beste pertsonaren baten izenean agertzen edo proposamenak izenpetzen dituzten pertsonak, berariazko ahalorde askietsia ere aurkeztu behar dute.
- b. Pertsona juridikoak diren enpresarien jarduteko gaitasuna kreditatzeko, haien eraketa-eskritura edo aldaketakoa aurkeztu behar dute. Eskritura horrek merkataritza-erregistroan inskribatuta egon beharko du, baldin eta hari aplikagarri zaion merkataritza-legeak hala eskatzen badu. Hala ez balitz, jarduteko gaitasuna kreditatzeko, eraketaren eskritura edo agiria, estatutuak edo sorrera-egintza aurkeztu beharko dituzte. Bertan, jarduera arautzeko arauak agertu beharko dira, eta behar bezala inskribatuta egon beharko dira kasuan kasuko erregistro publikoan.
- c. Jarduteko gaitasuna kreditatzeko, kontratatzeko adina ahalmen ematen duen ahalorde askietsia aurkeztu beharko dute, aurreko atalean xedatutakoa betez.
- d. Ardurapeko adierazpena, ahalmendutako pertsona batek izenpetua, eta behar bezala adieraziko duena enpresariak ez duela Sektore Publikoko Kontratuen Legeko 60. artikuluan araututako debeku, ezgaitasun edo bateraezintasuneko kausarik betetzen. Alderdi hori kreditatzeko, beteta eta izenpetuta aurkeztuko dituzte baldintza-orri honetako 2. eranskina.

Adierazpen horretan, berariaz azaldu beharko dute egunean betetzen dituztela zerga-betebeharrak eta gizarte-segurantzarekikoak. Horrez gain, hautatutako enpresaburuak alderdi horiek betetzen dituela kreditatu beharko du kontratua formalizatu baino lehen.

e. 6. eranskina behar bezala beteta aurkeztuko da.

f. 10. eranskina behar bezala beteta eta sinatuta aurkeztuko da.

- Baldintza-orriko karatulako "**G**" **ATALEAN** hala jasotzen bada, abal bat eratu izanaren agiria aurkeztu beharko da. Behin-behineko bermea izango da abal hori, eta atal horretan adierazitako zenbatekoa izan behar du.
- Lizitzailearen kaudimen ekonomikoa, finantzarioa eta teknikoa edo profesionala kreditatzeko, kaudimen hori dutela egiaztatzen duten honako agiri hauek aurkeztu behar dituzte:

- Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa

1. Finantza-erakundearen txostena, edo, haren ezean, arrisku profesionalen kalte-ordainerako aseguru bat izatearen frogagiria.
2. Urteko kontuak, merkataritza-erregistroan edo dagokion erregistro ofizialean aurkeztutakoak. Kontuak erregistro ofizialetan aurkezteko obligaziorik ez duten enpresariak, bestalde, kontabilitate-liburuak aurkez ditzakete, behar bezala legeztatuta.
3. Negozioen bolumenari buruzko adierazpena, edo haren ezean, kontratu honi lotutako jarduerekin zerikusia duten jardueren negozioaren bolumenarena, azken urtean izandakoen datuei dagokienez.

- Kaudimen teknikoa edo profesionala

1. Azken 3 urtean honen antzeko ezaugarriak dituztenen kontratu nagusien zerrenda, hau da, bizikleta hiri eremuan era egokian erabiltzeko prestakuntzari edo hiri inguruetan bizikletaren erabilera profesionalari lotutakoak; baita haien prezioak, datak eta onuradunak ere adieraziz.

Lehiaketan parte hartu ahal izateko, jarraian aipatzen diren eskakizunetako bat edo biak bete behar dute lizitzaileak

- a) Azken bi (2) urtean bizikleta hiri eremuan era egokian erabiltzeko prestakuntza zerbitzua eman duten lizitzaileak.
- b) Azken bi (2) urtean beste zerbitzu batzuk emandako lizitzaileak, baldin eta kontratuaren helburua diren ikastaroak emateko gaitu eta trebatzeko baliagarriak izan bazaizkie. Zerbitzu horiek bizikletaren erabilera profesionala hiri inguruetan kontuan izanda eta azken bi (2) urtean jarraian egin behar izango ziren.

- c) Azken bi (2) urtean hiri eremuan mugikortasun iraunkorrari lotutako plan, proiektu, azterlan edo jarduerak egindako lizitatuak. Esperientzia hori frogatu behar da.
2. Esleipen honen lanak egiteko lan-taldearen deskribapena, alor horretan langileen gaitasuna eta esperientzia azalduz.

Lote bakoitzari dagokion ikastaroa EAeko lurralde bakoitzean aldi berean egin ahalko denez gero, lizitatuak, eskaintzen dituen loteen arabera, begirale edo monitore kopuru honen prestutasuna akreditatu beharko du:

Eskaintzen duen lote kopurua	Lizitatuak eskura duen gutxieneko begirale kopurua
Bat	Hiru (3) begirale
Bi	Sei (6) begirale
Hiru	Bederatzi (9) begirale

Behar bezala arrazoitutako kausak direla medio, enpresariak ezingo balitu eskatutako erreferentziak eman, bestelako dokumentazioa balia dezake bere kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa kreditatzeko, baldin eta CADEMek egokitzat jotzen badu egiaztapen-bide hori.

- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko enpresek eta gainerako enpresa atzeritarrek horrela kreditatu behar dute beren jarduteko gaitasuna eta kaudimen ekonomiko, finantzario, tekniko eta profesionala:

1. Gaitasuna

- Espainiarrak ez diren Europar Batasuneko herrialdeetako enpresek edo Europako Eremu Ekonomikoari buruzko Ituna izenpetu duten herrialdeetako enpresek nahikoa izango dute erregistroan inskribatuta daudela kreditatzea edo HAKLEOko I. eranskinean adierazten diren ziurtagiriak aurkeztea.
- Gainerako enpresa atzeritarrek,
 - Haien herrialdeek Espainian duten misio diplomatiko iraunkorrek edo kontsul-etxeak emandako txostena aurkeztu behar dute. Txosten horrek behar bezala kreditatu beharko du, enpresak hala frogatu ondoren, lanbidezko, merkataritzako edo dagokion alorreko toki-erregistroak inskribatuta daudela, edo, horretarako obligaziorik ez balute, ohikotasunez lan egiten dutela, tokiko lan-eremuan, kontratuaren xedeari dagokion jarduera-esparruan.
 - Horrez gain, enpresaren jatorriko herrialdeak

Espanian duen Misio Diplomatiko Iraunkorrek edo Ekonomia Ministerioko Kanpo Merkataritzako Idazkaritza Orokorrak emandako txosten bat aurkeztu behar dute. Txosten horretan, dagokion herrialdeak Merkataritzako Mundu Erakundeak kontratazio publikoari buruz adostutako ituna izenpetu duela adierazi behar da.

- Enpresak Espanian sukurtsal bat irekia duela kreditatzen duten agiriak, eta, horietan, zehaztuko da zer ahaldun edo ordezkari dituzten izendatuta enpresa-eragiketetarako, eta merkataritza-erregistroan inskribatuta daudela.

2. Kaudimen ekonomikoa eta finantzarioa, teknikoa edo profesionala

Klausula honetako aurreko ataletan adierazitako moduan kreditatuko da. Europar Batasunekoak ez diren enpresa atzerritarrek kreditatu egin behar dute, baldintza hori Espainiako enpresei eskatzen bazaie, sailkatuta daudela, baldintza-orri honetako Karatularen "**N**" **ATALEAN** xedatutako moduan.

- Lizitazioan parte hartzeko, zenbait enpresarik aldi baterako enpresa-elkartea eratzen badute, enpresa bakoitzak bere gaitasuna eta kaudimena egiaztatu beharko ditu, aurreko puntuetan adierazitakoaren arabera, eta, kasuan betetzekoa bada, TRSPKLen 67.5 artikulua kontratisten sailkapenari buruz arautzen duena aplikatuko zaie.

Lizitazioa enpresa-elkarteari esleitzen bazaio, kontratazio-organoari kreditatu behar zaio enpresa-elkartea eskritura publiko batean eratu dela, eta ordezkari edo ahaldun bakarra izendatu beharko da. Ordezkari horrek nahikoa ahalmen izan behar du kontratutik eratorritako eskubideak erabili eta obligazioak betetzeko, harik eta kontratua amaitzen den arte. Enpresa-elkarteen iraupenak bat etorri behar du kontratuaren iraupenarekin, harik eta azken hori amaitzen den arte.

- Enpresen langilerian ehuneko bikoia edo handiagoa bada ezintasunak dituzten langileen ehunekoak, berriaz emandako ziurtagiri bidez edo agiri egokiz frogatu beharko da baldintza hori betetzen dela, baldin eta enpresek SPKLen laugarren xedapen gehigarriak eta Osasun eta Kontsumoko Ministerioak 2001eko abenduaren 17an emandako Aginduak xedatutakoaz baliatu nahi badute.

8.6 “B” gutun-azala: Formula bidez kuantifikatu ezin diren irizpideei lotutako dokumentazioa

Lizitatuak honako dokumentazio hau aurkeztuko du:

1. Metodologia. Egin beharreko lanen deskribapena eta jarraituko den lan metodologiaren nondik norakoa aurkeztuko da, eta gutxienez, hauxe azalduko da:

- Kanpoan egindako ikastaro baten edukia eta egitura, 5. eranskinean ageri den Zehaztapen Teknikoen Txostena kontuan hartuta.
 - Ikasgelan eta kanpoan egindako ikastaro baten edukia eta egitura, 5. eranskinean ageri den Zehaztapen Teknikoen Txostena kontuan hartuta.
2. Giza baliabideak. Kontratuaren helburua den ikastaroak emateko aurkezten duen lan taldearen deskribapena.

Lan taldeko kide bakoitzaren inguruan, haien gaitasun eta esperientziari lotutako alderdi hauetaz informazioa aurkeztuko da:

1. Bizikleta hiri eremuan erabiltzeko ikastaroak.
2. Bizikleta hiri eremuan erabilera, oro har.
3. Mugikortasun iraunkorra.
4. Komunikatzeko trebetasunak.

B gutun-azalak ez du edukiko, inola ere, lizitatzailleak eskaintzen dituen baldintza ekonomikoak edo prezioa. Eskakizun hori ez betetzeak eskaintza bazter uztea ekarriko du.

Adierazitako agiri horietakoren bat faltako balitz edo ez badira zorrotz betetzen aurreko ataletan adierazitako alderdiak, eskaintza bazter uzteko aukera izango da.

Nolanahi ere, Zehaztapen Teknikoen Txostenean azaltzen den dokumentazio guztia aurkeztu beharko da, plegu honen karatulako **“O” ATALEAN** jasotzen diren esleitzeko irizpideak balioesteko behar den dokumentazioa, hain zuzen ere.

8.7 **“C” gutun-azala: Formula matematiko bidez ebaluatu ahal diren irizpideak**

Baldintza-orri honetako 1. eranskinean jasotako proposamen-ereduari jarraituko zaio (prezioak ezingo du gainditu aurrekontuari ezarri zaion gehieneko zenbatekoa), eta Zehaztapen Teknikoen Txostenean azaldutakoa beteko da. Aparteko kontu-sail batean jasoko da balio erantsiaren gaineko zerga.

Proposamen ekonomikoa bide mekanizatuak erabiliz idatziko da eta izenpetuta aurkeztuko da; horiek horrela, ez dira onartuko gabeziak edo akatsak dituzten proposamenak, ezta eskaintzaren edukia zein den argitasunez jakitea eragotz dezaketen marraketak dituztenak. Alderik balego zenbakiz eta idatziz jasotako zenbatekoen artean, azken hori gailenduko da.

Lizitatzailleek ezingo dute, TRSPKLen 145. eta 147. artikuluei jarraiki, proposamen bat baino gehiago aurkeztu, baina aurkeztutako proposamenek egokitzat irizten dituzten soluzio-bariante guztiak jaso ditzakete; betiere, baldintza-orri honetako Karatularen **“M” ATALEKO** eskakizunak eta baldintzak betetzen badituzte. Bariante bat baino gehiago

aurkeztuz gero, bariante bakoitzari dagokion proposamen ekonomikoa aurkeztu behar du lizitatzailleak.

9 PROPOSAMENAK IREKITZEA ETA AZTERTZEA

- 9.1 Proposamenak aurkezteko epea amaituta, lizitatzailleek aurkeztutako dokumentazioa kalifikatuko da.
- 9.2 TRSPKLen 160.1 artikulua ez da aplikagarria izango, izaera armonizatua duten kontratuei lotutako proposamenen irekieraz.
- 9.3 Eskatutako dokumentazio administratiboa faltako balitz edo aurkeztutako agiriak akastunak badira, ez da onartuko lizitatzailleak egindako proposamena. Proposamenak akats materialak balitu, HAKLEOko 81. artikulua araututakoa beteko da, eta hiru (3) egun balioduneko epea emango da haiek zuzentzeko. Telefonoa erabiliko da izapide honen berri emateko; zehazki, lizitatzailleak eskaintzan adierazitako telefono-zenbakia.
- 9.4 Baztertu egingo dira gaitasuna eta/edo kaudimen ekonomiko eta finantzario nahiz tekniko edo profesional baldintza-orri honetan adierazitako moduan kreditatu ez duten lizitatzailleak, bai eta, kasu horretan badaude, zerbitzu-enpresen sailkapena kreditatu ez dutenak ere.

10 ESKAINTZA HAUTATZEKO OINARRIZKO IRIZPIDEAK

- 10.1 Lehiaketa esleitu gabe uzten ez badu, esleipena abantailatsuena den proposamenari egiteko aukera izango du CADEMek, eta, horretarako, ez du, ezinbestean, haren balio ekonomikari erreparatu behar.
CADEMek kontratua deuseztatu edo bertan behera utziz gero, lizitatzailleei 150 euroko kantitatea emango die.
- 10.2 Esleipenari ekin aurretik, CADEMek eskubidea izango du kontratua bertan behera uzteko, espedientean behar bezala justifikatuta, edo hautatzeko prozedurari ez ekitea, kontratua prestatzeko araudietan edota esleipena bideratzeko prozeduran hauste edo akatsen bat gertatuz gero.
- 10.3 Baldintza-orriaren karatulako **“O” ATALEAN** adierazitako oinarrizko balorazio-irizpideak baliatuko dira eskaintzak baloratzeko.
- 10.4 Irizpide gehigarri gisa, baldin eta horrela ezarri bada, eta proposamen ekonomikoei dagokienez, positibotzat joko dira lanak egiteko eta epeak betetzeko bermeak aurkezten badira.
- 10.5 Ildo horretatik, proposamen ekonomikoa ez da izango, berez, erabakigarria, baina esleipen-erabakiaren joera izango da, lehiaketako eskaintzei erreparatu ondoren, egin beharreko lanen arrazoizko baliora gehien gerturatzeko diren eskaintzak hautatzea.
- 10.6 Balio ezohikoak edo gehiegizkoak. Eskaintza ekonomiko onuragarrienak balio ezohikoak edo gehiegizkoak izango balitu eta CADEMek, enpresak egindako justifikazioa aintzat hartuta eta eskatutako txostenei jarraiki, eskaintza ezin izango litzatekeela bete, balio ezohikoak edo

gehiegizkoak direla eta, behin-behineko esleipena egingo luke bigarren proposamen ekonomiko egokienaren alde, sailkatu diren hurrenkera kontuan hartuz; betiere, CADEMk azken proposamen hori modu onean beteko dela uste badu eta inolako balio ezohiko edo gehiegizkorik ez badu.

Proposamen batek balio ezohiko edo gehiegizkoak izango ditu honako baldintza hauek betetzen baditu: eskaintzen duen prezioa onartutako proposamenen batez bestekoaren aldean ehuneko hogeita (%20) gutxiago denean.

Proposamen batek balio ezohiko edo gehiegizkoak dituela adierazi baino lehen, harekin zerikusia duten pertsonen informazioa eskatu eta eman beharko litzaieke. Gainera, dagokion zerbitzu teknikoaren aholkularitza emango zaio eta kontratazio mahaiak txostena egingo luke.

- 10.7 Esleipenerako oinarri diren irizpide objektiboak aztertu ondoren, bi lizitatzaileraren edo gehiagoren artean berdinketa balitz, enpresa hau aukeratuko da: kaudimen teknikoa kreditatzeko unean, lan-plantillan ezintasunak dituzten langileen kopurua langile guztien ehuneko bikoia edo handiagoa duena.

11 ENPRESABURU ESLEIPENDUNA AUKERATZEA

- 11.1 Eskaintzak baloratu eta enpresaburu esleipenduna hautatzeko gehienezko epea hogeita hamar (30) egunekoa izango da, lote bakoitzean, proposamenak aurkezteko epea amaitzen den egunetik aurrera.

Epe hori igaro ondoren, erabakia jakinarazi ez bada, lizitatuzaileek, egoki irizten badute, beren proposamenak erretiratzeko asmoa dutela jakinaraz dezakete.

- 11.2 CADEMen iritziz, eskaintza ekonomiko egokiena aurkeztuko duen enpresaburu hautatu eta gero, eta kontratua sinatu aurretik, zenbait agiri aurkeztu behar dizkio CADEMi hautatutako enpresaburuak. Horretarako, hamar (10) egun balioduneko epea izango du gehienez, agiri horiek eskatzen zaizkion unetik aurrera. Hauek dira agiriok:

a) Zerga-betebeharrak

- Ziurtagiri positiboa, Zerga Administrazio Estatuko Agentziak emana, zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo hori aurkezteko betebeharrak ez duen ardurapeko adierazpena.

Ziurtagiri positiboa, foru-aldundiek emandakoa, administrazioarekin zerga-betebeharrei lotutako zorrik ez duela egiaztatzen duena, edo hertsadura bidea erabiltzeko ez dagokien zergadunen kasuan, borondatezko epean ordaindu ez diren zorren inguruan.

b) Gizarte Segurantzarekiko betebeharrak

Ziurtagiri positiboa, Gizarte Segurantzaren Lurralde Altxortegiak emandakoa, Gizarte Segurantzarekiko zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak egunean betetzen dituela adierazten duena, edo hori aurkezteko betebeharrak ez duen ardurapeko adierazpena.

c) Jarduera Ekonomikoen gaineko Zerga

Jarduera ekonomikoen gaineko zergako alta-agiria edo zerga horretako azken erreziboa aurkeztu behar du, eta, horrekin batera, ardurapeko adierazpen bat aurkeztuko du (4. ERANSKINA) zerga horretan bazarik ez duela hartu azalduz. Aurkeztu behar ez baldin badu, hori egiaztatzen duen agiria aurkeztuko da.

d) Aseguru guztien egokitzapena, estaldura aseguru enpresak egiaztatuta, eta indarrean dauden dokumentuak, Plegu honen 20. atalean jasotzen diren baldintzen arabera.

e) Behin betiko bermea ezarri izanaren egiaztageria, karatulan "H" atalean hala erabaki baldin bada. Horretarako, TRSPKLen 96. artikuluan xedatutakoa beteko da.

f) Beste dokumentu batzuk. Kontratatzeko gai den egiaztatzen duen gainerako dokumentazioa, edo kontratua aurrera eramateko konprometitutako bitartekoak egiaztatzen dituzten dokumentuak.

CADEMeko sarrera-erregistroan aurkeztu behar dira agiri horiek guztiak. Aipatutako epean behar bezala aurkeztu ezean, lizitatuzaileak eskaintza bazter utzi duela ulertuko da. Hori horrela, hurrengo lizitatuzaileari eskatuko zaio dagokion dokumentazioa, eskaintzak sailkatuta geratu diren hurrenkerari jarraiki.

11.3 CADEMek bost (5) egun balioduneko epearen barruan esleituko du kontratua, dokumentazioa jasotzen den unetik kontatzen hasita. Esleipen hori justifikatu eta motibatu egingo da eta lizitatuzaile guztiei haren berri emango zaie, jakinarazpen baten bidez (faksa/posta/posta elektronikoa) eta Kontratatuzailearen Profilean argitaratuz.

12 KONTRATUAREN FORMALIZAZIOA

12.1 CADEMek bere gain hartzen du eskaintzaren edukia egiaztatzeko gaitasuna, bai eta kontratuaren formalizazioaren aurretiko dokumentazio administratiboa egiaztatzekoa ere.

12.2 Kontratuaren formalizazioa enpresariari bere eskaintza onartua izan dela jakinarazi ondorengo egunean hasiko da, eta hamar (15) egun naturaleko epean egingo da.

12.3 Kontratuaren formalizazioaren bitartez, CADEMek kontratuzko onarpena adierazten du eta modu horretara, kontratua perfektionatzen da.

12.4 Kontratuak bere baitan bilduko ditu CADEMek kontratatzekeo dituen barne arauan jasotako aipamenak.

- 12.5 Kontratua ezin izango da formalizatu enpresariak baldintza-orri honetan zehazten diren dokumentu guztiak aurkezten ez baditu. Kontratua enpresariari egotz dakizkion arrazoiengatik formalizatuko ezin balitz, CADEMek behin-behineko bermea konfiskatzeko eskubidea izango du, horrelakorik izango balitz. Behin-behineko bermerik ez balego, enpresariak CADEMi kalte-ordaina eman beharko dio. Kalte-ordaina gehienez ere kontratuaren aurrekontuaren ehuneko hirukoa izango da.
- 12.6 Kontratua dokumentu pribatuan formalizatuko da, eta formalizazio horretatik eratorritako gastu eta zerga guztiak hautatutako enpresariak ordaindu beharko ditu.
- 12.7 Kontratua enpresa-talde bati esleituz gero, enpresa horiek talde horren eraketa frogatu beharko dute eskritura publiko baten bitartez eta kontratuaren formalizaziorako zehaztutako epean. Enpresa-taldeari emandako IFZ ere aurkeztu beharko dute.
- 12.8 Esleipendunak isilean gorde beharko ditu kontratua dela eta ezagutuko dituen eta kontratuarekin zerikusia duten ezkutuko datu eta aurrekari pribatuak.

13 KONTRATUA GAUZATZEA

- a) Kontratua klausula eta pleguetan ezarritakoari atxikita beteko da, eta kontratazio-organoak, honen ordezkariak edo kontratuaren arduradunak kontratistaren esku utz ditzakeen interpretazio jarraibideen arabera.
- b) Kontratua kontratistaren arrisku eta zoriaz beteko da.
- c) Kontratistak bere gain hartuko du garatutako lanen eta burututako eginkizun eta zerbitzuen kalitate teknikoaren ardura, baita CADEMENTzat edo hirugarrenentzat kontratua betetzean gerta daitezkeen hutsegite, akats, metodo desegoki edo ondorio okerrekin eragindako ondorioen erantzukizuna ere.
- d) Kontratua behar bezala betetzeko, kontratistak konpromisoa hartzen du informazio osagarria eta laguntza teknikoa emateko (dokumentuak eta mota guztietako informazioa).
- e) Lanak egiten diren bitartean, kontratuaren aplikazio zuzenaren eta istripu edo kalteen, pertsonen, materialei eta hirugarrenei gerta dakizkienak, ardura kontratistarena izango da.
- f) Kontratua indarrean dagoenean eta kontratua amaitu ondoren, kontratista derrigortuta dago isilpeka gordetzera kontratuaren helburuekin zerikusia duten datu eta aurrekariak, bereziki jakinak eta agerikoak ez direnak, baita kontratua bete ahala ezagut ditzakeenak ere.
- g) CADEMek ez dio ordainduko kontratistari kontratuan zehaztuta ez dagoen ezein lan edo kontratazio-organoak edo kontratuaren arduradunak aldeztu aurretik baimendu ez duen ezein lan.

14 KONTRATUAREN ALDAKETA

1. Honako kasu hauetan alda dezake kontratua CADEMek:

a) TRSPKLen 107. artikuluan xedatutako arrazoiak tartean badira.

b) Baldintza-orri edo Plegu honetako 9. eranskinean zehazten diren arrazoiak tartean badira. Nolanahi ere, aldaketa horiek ezin izango dute hasierako kontratuaren ehuneko 20a gainditu.

Kontratatistak derrigorrean onartu behar ditu aldaketa horiek eta ez du kalte-ordainik eskatzeko eta jasotzeko eskubidea, kontratuaren xedea gauzatzeko lanen gutxitzea edo bertan behera uztea ekarriko badute ere.

2. Kontratzko aldaketen prezioa bi aldeek zehaztuko dute, bakoitzak bere prezioak ezarriz eta horiek negoziatuz.

3. Kontratzko aldaketen prezioa finkatzeko, kontratatistak eskainitako prezioa hartuko da kontuan.

4. Proiektuan aurreikusi ez diren edo oso ezberdinak diren beste obra batzuk egitea, zerbitzuak edo hornidurak baldin badakartzate aldaketek, horien prezioak CADEMek ezarriko ditu, aldez aurretik kontratatistari jakinarazita, hiru (3) eguneko gutxieneko epean. Ezarritako prezioak onartu ezean, kontratazio-organoak beste enpresaburu batekin kontrata ditzake aldaketen ondoriozko lan horiek, ezarritako prezio berean edo gauzatu ditzake zuzenean. Beste enpresaburu batekin egin daitekeen kontratazioa CADEMen kontratazioari lotutako barne jarraibideen arabera egingo da; betiere, kontratuaren kantitatea kontuan hartuz.

5. Kontratuan egin litezkeen aldaketak idatziz azalduko dira.

6. Kontratuaren aldaketen ondorioz, prezioan ere aldaketarik izango balitz, haren behin betiko bermea egokituko litzateke, aldatuko litzatekeen prezio berriarekin proportzio egokian izan dadin. Hori guztia, hamabost eguneko epean egin beharko litzateke, enpresaburuari aldaketaren berri ematen zaion egunetik kontatzen hasita.

7. CADEMen aldetik kontratuaren aldaketa adostuta ere, eta horrek lanen atal batzuk egiten jarraitzeko eragozpenik eragingo balu, kontratua behin-behinekoz, aldez edo betiko bertan behera uztea adostu beharko litzateke, kasuan kasu.

8. Aldaketen bideratzeak lanen atal batzuk behin-behinekoz, aldez edo betiko bertan behera uztea eskatzen badu, eta horrek interes publikoari kalte handia eragingo balio, CADEMek erabaki dezake lanekin segitzea behin-behinekoz, kontratuaren arduradunak prestatuko duen proposamen teknikoaren arabera;

betiere, aldaketaren arrazoia Baldintza-orri honetako klausulekin bat etorri eta hori finantzatzeko nahiko krediturik izanik.

15 KONTRATUAREN LUZAPENA

Baldintza-orri honetako Karatulan aurreikusten diren baldintzak betez luza daiteke kontratua.

Aurreikusitako luzapenak gertatuko balira, kontratuaren prezioa hasieran zehaztutakoa izango litzateke, baina, luzapeneko urte bakoitzean berraztertu egingo da aurreko urteari dagokion KPIren %85 aplikatuz. KPIa Estatistikako Institutu Nazionalak ezarritakoa izango da (TRSPKLen 90.3 art.)

16 PREZIOAREN ORDAINKETA

Kontratatik CADEMen adostasunarekin burututako eta emandako lanengatik ordainsaria jasotzeko eskubidea izango du, lanei dagozkien fakturak aurkeztuta.

Plegu honetako karatulan adierazten da prezioaren ordainketa nola egingo den. Inola ere ezingo da ordainketarik egin kontratua formalizatu arte.

Kontratuaren arduradunak emandako berariazko baimena jaso ezean, kontratatik ez du egindako hobekuntzak kobratzeko eskubiderik.

Plegu honetan jasotzen den bezala, CADEMek kontratatari ezarri ahal dion zigor ekonomikotik prezioa kentzeko eskubidea du.

17 EPEAK ETA BERANDUTZEAGATIKO ZIGORRAK

a) Kontrata derrigortuta dago kontratua Plegu honetako Karatulan finkatutako epeetan gauzatera; baita proposamen teknikoarekin batera aurkeztutako lan-plangintzan jasotzen dena ere.

b) Kontrata edozein epean berandutu egin dela jotzeko, ez da beharrezkoa izango CADEMek alde aurretik ohartarazpenik egitea.

c) Epea betetzen ez baditu do atzerapenak gertatuz gero, CADEMek kontratua deuseztatu ahal izango du edo atzerapen horiei dagozkien zigorrak, hau da, kontratuaren prezioaren %5eko zigorra jarri ahal izango dio. Atzerapen horiei dagozkien zigorrak EEEK ezarriko ditu automatikoki.

d) Kontratatik ordaindu egin beharko ditu zigor edo kalte-ordainak, alde biek iragarrita eta alde aurretik programatutako ikastaro bat bertan behera geratzearen edo luzatzearen arrazoia behar bezala justifikatzen ez baditu. CADEMek eskubidea izango du, hitzartu edo justifikatu gabeko ikastaro

bakoitzeko, lanaren zenbateko ekonomikoaren %5eko zigorra ezartzeko, halakorik gertatuz gero.

Zigorren zenbatekoak ez du kanpo uzten CADEMek kontratistaren berandutzeagatik sortutako kalte-galerak direla kausa eska dezakeen kalte-ordaina, ez eta CADEMek kontratua suntsiarazteko duen eskubidea ere.

e) Era honetako zigorrak ezartzeko prozeduran kontratistari alegazioak egiteko aukera eman beharko zaio derrigorrez, kontratuaren arduraduna entzun ondoren.

18 KONTRATISTAK KONTRATUA AKATSEZ BETETZEA EDO ZATIKA BETE GABE UZTEA

CADEMek zehaztuko du kontratistak egindako lana gauzatze eta betetze-aldiari begira ezarritako preskripzioekin bat datorren ala ez, eta behar izatekotan, kontratatutako zereginak bete ditzala edota harrera aldiari igarritako akatsak konpon ditzala eskatuko dio. Zuzenketa horiek egiteko epea zazpi (7) egunekoa izango da gehienez ere.

Egindako lanak ez badatoz bat kontratatutako zereginekin, kontratistari egotz dakizkiokeen akatsak edo hutsegiteak medio, CADEMek lan horiek errefusatu eta ordainketa egitetik salbuetsita geratzeko aukera izango du, eta horrekin batera, kontratua bera indargabetu ahal izango du, eta kontratistari, zigor gisa, adostutako azken prezioaren %20 eskatu ahal dio.

Zigor horien barruan ez daude, kalte-ordain moduan, CADEMek jasotzeko eskubidea izan dezakeen diru kantitatea, kontratistak epeak eta beste ez betetzeagatik sor daitezkeen kalteen ondorioz.

19 KONTRATISTAREN BETEBEHARRAK

19.1 Lan arriskuen prebentzioa

Esleipendunak bete eta bere ardurapeko langileei betearaziko dizkie lan legeriak arriskuen inguruan xedatutako arau guztiak; baita aplikagarria zaien Lan Ituna, eta bereziki, Lan Arriskuen Prebentzioaz diharduen azaroaren 8ko 31/1995 Legeak dioena bete eta betearaziko du.

19.2 Betebehar laboral eta sozialak

a) Kontratistak, esleitu zaion lana egiteko kontratatzen dituen langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia eta Gizarte Segurantzari, ezinduen integrazio laboralari eta lan-arriskuen prebentziari buruzko araudiak bete behar ditu. Gizarte-formazioarekin zerikusia duten azken araudi horien kasuan, azpikontratatuak –halakorik izanez gero– bere langileei dagokienez, indarrean dagoen gai laboralei buruzko araudia beteko duela ziurtatu behar du kontratistak.

b) Kontratu hau betetzeko aplikagarria diren heinean, kontratistak espresuki adierazi behar du higiene, segurtasun eta ingurumen alorreko araudi eta legeak

bete eta betearazteko bitartekoak, gaitasuna eta ezagutza dituela, eta kontratua betetzean horrelako gaien inguruan gerta litezkeen erreklamazioei aurre egiteko konpainiak ez du inolako ardurarik.

c) Kontratatik bere menpeko langile guztiei babesteko ekipo homologatuak eman behar dizkie, kontratuan aurreikusten diren lanen segurtasunak edo arriskuak hala eskatzen badu, aplikagarria izan dakiokien lan arriskuak prebenitzeko planaren arabera. Horrekin batera, langile horiek ekipoak behar bezala erabiltzeko prestakuntza jaso dutela bermatu behar du.

d) Kontratista behartuta dago lana baldintza duinetan egiten dela bermatzera, bai bere enpresan, bai hark azpikontratutako enpresetan (halakorik izanez gero). Horrez gain, langileei dagokien sektoreko hitzarmenak beteko dira, batez ere pertsonalaren subrogazioari dagokionez.

e) Lanei atxikitako beharginek kontratistaren menpe jardungo dute, eta honek enpresariari dagozkion eskubide eta betebeharrak izango ditu beharginen gainean.

f) Kontratua hau sinatzeagatik CADEMek ez du inolako betebeharrak eta erantzukizunik izango gizarte eta lan betebeharren inguruan, legez kontratatik bere menpeko langileekin dituenak, alegia. Nolanahi ere, kontratatik konpromisoa hartzen du CADEMi erreklamaziorik ez eskatzeko, haren langileek edo beste batek aipatutako betebeharrak izan ditzaketean arazoan aurrean.

g) Orokorrean, kontratatik aurre egin beharko die enplegatzaile gisa dagozkion betebeharrak, bai eta kontratatik edo honen azpikontratatik langileekin dituzten lan-harremanak edo bestelakoak erregulatu eta garatzen dituzten arauak betetzetik datozkienei ere, eta CADEMi ez zaizkio leporatuko horietako edozein ez betetzeak sor ditzakeen isun, zigor edo bestelako erantzukizunak. Edozein kasutan, kontratatik oso-osorik ordainduko dio CADEMi. Plegu honetako betebeharrak ez betetzeak zehaztuta daukan kalte-ordaina, nahiz eta ebazpen judizial edo administratiboak ezarritakoa izan

h) CADEMek hala eskatzen badiu, kontratatik dokumentatuta egon daitezkeen betebeharrak betetzen direla egiaztatzen duten dokumentu guztiak aurkeztuko dizkio. Aurkezten ez badiu edo justifikatu gabeko luzapena gertatzen bada, kontratuan ezarritako betebeharrak bat ez dela betetzen ulertuko da, eta, beraz, CADEMek kontratua bertan behera uzteko eskubidea izango du.

i) Kontratua iraungita, ezin izango dira inola ere CADEMeko langile bihurtu kontratuan zehaztutako zereginetan jardun duten beharginak.

j) Kontratatikari egokituko zaizkio, eta bere kontura joango dira, kontratua betearazteak ekarri ahal dizkion kostu guztiak.

k) Behar bezala justifikatuta ez dauden atzerapenak edo dokumentazioa ez aurkezteak ekarriko du kontratua ez betetzea, eta, beraz, CADEMek bertan behera utz dezake kontratua.

19.3 Ingurumenari buruzko betebeharrak

Kontratatik eta bere ardurapeko azpikontratek egingo dituzten lan guztietan saihestuko dituzte kalte edo eragin kaltegarria ingurumenean, animalietan eta

landaretan, eta egin beharreko lanen ondorioz eragingo diren gorabehera edo kalteak ekiditeko edo murrizteko erabaki edo neurri guztiak hartuko ditu.

Ingurumen alorrean agintari eskudunek emandako eta ezarritako lege, araudi eta gomendio guztien arabera egingo ditu lan guztiak kontratistak. Horretaz gain, CADEMek eman ditzakeen arau guztiak ere beteko ditu, eta bete ezean, kontratista bera izango da arduradun bakarra.

19.4 Hirugarrenen baimenak

CADEMek bere kabuz egin ditzakeen kontratuzko eragiketak eta kudeaketalanak alde batera utzita, kontratistak bere lana egiteko beharrezkoak diren baimen eta lizentziak lortu beharko ditu, haiek norbanakoei, elkarteei, enpresei eta erakundeei eskatuz. Baimen horiek lortzeko zerbait ordaindu beharko balitz, diru-kopuru hori ere kontratistak ordaindu beharko du.

20 ASEGURUAK

Kontratuak honako aseguru hauek eduki behar ditu:

- a) Erantzukizun zibil profesionalaren asegurua. Aseguru honek CADEMENTzat diharduten profesionalak (abokatu, ingeniari, ingeniari teknikoek...) beste bati eragin ahal dizkieten kalte edo zauriak, pertsonalak edo materialak, estaltzeko bermea eman behar du.

Aseguru hau ospe handia duen aseguru enpresa batekin sinatu behar da, eta gutxieneko kalte-ordaina ez da 60.000 euro baino txikiagoa izango.

1.- Kontratuari lotutako lanei ekin aurretik, kontratistak egindako aseguruaren kopia edo egiaztagiria emango dio CADEMi, eta horien baldintzei eta indarraldiari lotutako aldaketen berri eman beharko du. Baldintza horiek aldatuko lirateke, behar izanez gero, CADEMen iritiz.

2.- Kontratistak dokumentu honetan aipatzen diren aseguruak kontratatzen ez baditu, edo aseguruak indarrean daudela egiaztatzen dituzten agiriak hogeita hamar (30) egun naturaleko epean aurkeztu ezean, CADEMek aseguru horiek egiaztatzeko agiriak aurkezteko eskatzen duen egunetik kontatzen hasita, ordainduta daudela argi nabarmenduz, CADEMek eskubidea izango du antzeko estaldura izango duten aseguruak kontratatzeko, eta horien kostuak kontratzailearen kontura joango dira eta, hala dagokionean, CADEMek kontratistari egin beharreko ordainketatik kenduko dira.

3.- Aseguruaren inguruan kontratistari begira ezarritako eskakizun guztiak azpikontratistei ere eragingo dizkiete, betiere modu egokian eta arriskuen proportzionaltasunaren arabera, eta alor honetan hutsune edo gabeziaren bat izanez gero, CADEMi eman beharko dizkio azalpenak.

4.- Aipatutako aseguru edo polizetan aldaketarik izanez gero, bertan behera edo berritzeak egiten badira, adibidez, kontratistak CADEMi jakinaraziko

dio. Era berean, CADEMek hala eskatzen baldin badio, kontratistak aseguruaren kontratuen kopiak eta ordainduta daudela egiaztatzen dituzten dokumentuak erakutsiko dizkio

Kontratistak egiaztatzen edo bidaltzen ez baditu eskatutakoa, bere aldetik kontratua ez betetzea lekarke.

5.- Kontratistaren kargura izango diren arrisku, betebeharrak eta erantzukizunak ez dira mugatzen klausula honetan aipatzen diren aseguruaren kontrataziora. Hori horrela, hartutako arriskuetatik erator daitezkeen betebeharrak eta erantzukizunak ez dira soil-soilik sinatutako aseguruaren zenbatekoetara mugatuko, CADEMen edo besteren kaltean gauzak gertatuz gero.

6.- Atal honetan aipatutako aseguru guztien kostua kontratistak ordaindu beharko du.

21 EGINDAKO LANEN JABETZA ETA DATU PERTSONALEN ERABILERA. KONFIDENTZIALTASUNA

21.1 Egindako lanen jabetza

CADEMen jabetzapekoak izango dira jasotako zerbitzua eta egindako lanei dagozkien eskubideak, baita hauen jabetza industrial eta komertziala ere, CADEMen esku egonik horien erabilera, beste inork merkaturatu, berregin edo beste era batez erabiltzeko aukerarik izan gabe CADEMek espresuki baimentzen ez badu, eta ondorioz, honek jabetzari dagozkion agiri edo materialak ematea eskatu ahal izango du, aurrekariak, datuak eta prozedura guztiak barne.

Jabetza intelektual edo industrialaz babestutako produktuak garatzea eta erabiltzeko moduan jartzea xede duten zerbitzu-kontratuek CADEMen esku utziko dute aipatutako jabetza intelektual edo industrialak.

Jabetza intelektualari atxiki dakizkiokeen lanak CADEMi eskusibaz emandakoak direla ulertuko da, salbu eta aldezturiko eskubideak dauden kasuetan, halakoetan emakida eskusibotasunik gabe egin daitezke eta.

Kontratua indargabetu ahal izango da, baldin eta egiaztatzen bada kontratistak kontratugaitzat jo daitezkeen lana, osorik nahiz zatika, hirugarrenen esku utzi duela CADEMen baimenik gabe. Kontratua indargabetzeko kausa hau gertatzekotan, kontratistak kontratua bete gabe utzi duela ulertuko da ondorio guztietarako.

21.2 Datu pertsonalen erabilera

Datu pertsonalen erabileratzat honako jardura hauek hartuko dira: izaera automatizatua izango duten ala ez eragiteka eta prozedura teknikoak, zeinen bidez datuak bildu, grabatu, gorde, prestatu, aldatu, blokeatu eta deuseztatzea ahalbidetzen duten. Halaber, komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzien bidezko datu konexioak, baldin eta horiek pertsona fisikoa nor den jakin edo identifikagarria izateko bidea ematen duen edozein informazioa

badute.

Kontratuan datu pertsonalen erabilera kontuan hartzen baldin bada, edo enpresa kontratistaren edo azpikontratistaren sarbidea horrelako datuetara aurreikusten baldin bada, honako araua hauek beteko dira:

1. Datuak erabiltzeko arduradunaren jarraibideen arabera erabiliko ditu datuak kontratistak.
2. Erabiliko diren datu pertsonalak kontratu hau gauzatzeko beharrezkoak direnak baino ez dira izango, eta ezin izango dira erabili bestelako xedeekin.
3. Kontratu hau gauzatzeko erabiliko diren datuak ez zaizkio inori emango. Hori horrela, kontratistak konpromisoa hartzen du datu horiek edo datu horiekin eratutako fitxategiak ez jakinarazteko, eskualdatzeko, emateko edo agerrarazteko besteri inolako bidez (ahoz, idatziz, posta elektronikoz, paperez edo sarbide informatikoz); ezta bistaratzeko ere.
4. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoaren 10. artikuluan xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzean arituko diren kontratistak eta gainerako eragileek isiltasuna gorde beharko dute zenbait daturen inguruan. Isiltasun gordetzeko behar hori kontratua amaitu ondoren ere izango da indarrean.
5. Abenduaren 13ko Datu Pertsonalak Babesteko 15/1999 Lege Organikoak xedatutakoa betez, kontratu honen gauzatzearen ondorioz, kontratistak konpromisoa hartzen du datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko, eta horretarako, neurri tekniko, administratibo eta eraketako guztiak hartuko dituela. Ildo horretatik, honako arau hauek beteko ditu:
 - a) Lanei ekin aurretik, enpresa esleipendunak kontratazio-organoari datu hauek eman beharko dizkio: datu pertsonaletara sarbidea izango duten langile guztien izena, abizenak, zereginak eta lana egingo duten lekua. Kontratua gauzatzen den bitartean aldaketaren bat egin behar izanez gero, alta edo baja eman langileren bati, enpresa esleipendunak haren berri emango du astebeteko epean, aldaketa gertatzen den egunetik kontatzen hasita. Enpresa esleipendunak nahiz aipatutako langile horiek konpromisoa hartu behar dute idatziz isiltasun profesionala gordetzeko datu pertsonalez.
 - b) Enpresa esleipendunak segurtasun neurri egokiak hartu beharko ditu, plegu honetan azaltzen diren tratamendu zentroak, ekipoak, lokalak eta programak behar bezala erabiltzeko.
 - c) Kontratu honen xedea diren lanak bukatu eta gero, datu pertsonalak izango dituzten euskarri guztiak itzuliko ditu enpresa esleipendunak, edo horrelako datuak izango dituzten fitxategiak ezabatu edo deuseztatuko ditu. Deuseztapena era egokian egingo da, hau da, datuak berreskuratzeko aukerarik ez izateko. Fitxategiak itzultzeko edo deuseztatzeko egiaztapena akta bidez egingo da, enpresa esleipendunaren ordezkariak eta lanen zuzendariak sinatuko duten akta horretan azalduko da ekintza hori.
6. Kontratua indarrean egongo den bitartean, CADEMek kontrolak egiteko

eskubidea izango du, ezarritako segurtasun neurriak, eta hala badagokio, neurri zuzentzaileak behar bezala betetzen direla egiaztatzeko.

21.3 Konfidentzialtasuna

Esleipendunak kontratatutako zerbitzuei buruz ezagutu ditzakeen datu guztiak isilpekotzat jotzen dira eta beraien identitate eta sekretua gorde behar ditu, eta CADEMek eskatutako lanak egiteko erabiliko du informazioa.

Kontratatistak konpromisoa hartzen du modu konfidentzian erabiltzeko halakotzat jotzen den informazio oro, eta plegu honetan azaltzen den xederako baino ez du erabiliko informazioa.

Esleipendunak kontratatutako zerbitzuei buruz ezagutu ditzakeen datu guztiak isilpekotzat edo konfidentzialtzat jotzen dira eta beraien identitate eta sekretua gorde behar ditu, eta CADEMek eskatutako lanak egiteko erabiliko du informazioa.

Aurreko paragrafoan aipatutako kontratatistak edo pertsonak ezin izango dute EEEK emandako informazioa zabaldu, aldatu edo beste bati eman, kontratua gauzatzeko informazioa den aldetik.

Kontratatistak konpromisoa hartzen du aipatu informazioa modu konfidentzian erabiltzeko, eta konfidentzialtasun eta sekretutasun horren berri emango die bere langileei, elkartuei edo kontratatistarekin harremanak dituen edonori, CADEMeko kontratu betebeharrak modu egokian gauzatzeko behar den informazioaz, hain zuzen ere.

Aldez aurretik CADEMek baimena eman ezean, eman zaion edozein dokumentu ez du erreproduzitu ezta kopiatu ere kontratatistak (informazio konfidentziala izan dezakeena), zerbitzua emateko ezinbestekoa denean izan ezik.

Kontratatutako zerbitzuaren ezaugarriak kontuan izanik, hala badagokio, kontratatistak dokumentuak eta kopiak itzuli egingo ditu, kontratuaren lanak amaitu eta gero, emango zaizkionak hala eskatzen badio.

22 LAGAPENA ETA AZPIKONTRATAZIOA

Kontratu honen helburu diren zerbitzuak ezin izango zaizkie laga edo azpikontratatu hirugarrenei.

23 HIZKUNTZA BALDINTZAK ZERBITZU KONTRATUETAN

Azterlanak, txostenak, proiektuak eta kontratu honi lotutako gainerako lanak EAEko hizkuntza ofizial bietan egingo dira. Horren barruan sartzen dira software guztien testuzko eta entzunezko interfazeak.

Kontratuak herritarrei zerbitzuak ematea eskatzen duenean, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresaren eta zerbitzuaren erabiltzailearen arteko ahozko komunikazioetan eta komunikazio idatzietan erabiltzaileak aukeratutako hizkuntza erabiliko da.

Berariaz inolako aukerarik egiten ez bada, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak pertsona fisikoei eta juridikoei egiten dien era guztietako jakinarazpen eta komunikazioak hizkuntza ofizial bietan egingo dira, fakturak eta zirkulazioko bestelako agiriak barne. Hala ere, prestazioaren jasotzaileak edozein unetan erabil dezake hizkuntza aukeratzeko eskubidea eta, ondorioz, nahi duenean eskatu ahal izango du hizkuntza ofizialetako bakar bat erabiltzea.

Administrazio kontratu-egilearekiko harremanetan, normalean euskara erabiliko da. Kontratua gauzatzeari begira, hauxe da “normalean euskara erabiltzea”: a) ahozko komunikazioetan, euskaraz dakien langileek euskaraz egingo dute, hasiera baten, kontratua gauzatzeko zereginak direla eta administrazio kontratu-egilearekin harremanetan jartzen direnean. Administrazio kontratu-egilea euskaraz zuzentzen ari den langile bati eta horrek hizkuntza behar bezala menperatzen ez badu, kontratua gauzatzeko ardura duen enpresak berehala jarri beharko ditu euskara behar bezain ondo dakiten langileak edo bitartekoak, kontratuaren ondorioz administrazioarekin burutu beharreko harremanak euskaraz izan daitezen, eta b) komunikazio idatziak euskaraz eta gaztelaniaz egingo dira, salbu eta igorleak eta hartzaileak euskara hutsean egitea erabakitzen badute.

24 KONTRATUAREN ARDURADUNA

Izaera teknikoko erabakiak hartzerakoan, CADEMek kontratuaren arduraduna izenda dezake, kontratistak egindako lanen gaineko aholkularitza eta ikuskapen lanak egin ditzan, eta kontratazio-organoaren edo honek ordezkartzat aukeratzeko duen pertsonaren eskumena izango da kontratuaren arduradunak kontratuaren garapenez egindako jarraipenaren ondoriozko erabakiak hartzea. Era berean, aintzat hartuko ditu Plegu honetan egotzitako zereginak. Kontratazio-organoak kontratuaren arduradunaren esku utz ditzake kontratuaren burutzapenez dituen eskubide eta ahalmenak, guztiak edo batzuen batzuk.

25 KONTRATUAREN IRAUNGIPENA/DEUSEZTAPENA

Amaitu delako, bete delako edo eten delako iraungiko da kontratua.

Kontratua iraungitzeko arrazoiak baldintza-orri honetan, Kode Zibilean eta TRSPKLen 223. artikuluan zehazten direnak izango dira. Baita honako arrazoi hauek ere:

(i) Baldin eta kontratua gauzatzeko garaian, hirugarrenen ekintzen ondorioz, kontratua gauzatzea ezinezkoa balitz ikuspuntu tekniko nahiz ekonomikotik, bidezkoa litzateke, CADEMek egokitzen joz gero, kontratua indargabetzea, eta ondorioz, kontratistari CADEMek eskatu eta bere horreketan gauzatutako lanak

ordainduko litzaizkioke soilik, arrazoi honengatik CADEMi kalte-ordaina eskatu edo erreklamazioa egitea bidegabekoa delarik.

(ii) Kontratataren berandutza kontratuan adierazitako lanak egiteko epea betetzerakoan.

(iii) Kontratuan ageri diren gainerako funtsezko betebeharrak ez betetzea.

Ezarritako baldintzen arabera arrazoi hauetako edozein gertatuz gero, CADEM baimenduta egongo da kontratua indargabekotzat jotzeko, eta Plegu honen eta indarreko araudiaren arabera dagokion kalte-galeren ordaina eskatu ahal izango du, betearazpen subsidiarioaz baliatzeko aukera barne, egin gabe geratu diren betebeharrak gauzatuz edota lanak gauzatzen jarraituz, berez edo egokituz jotzen dituen pertsona edo enpresen bitartez, kontratataren kontura.

26 JURISDIKZIO ESKUDUNA

Jurisdikzio Zibileko Epaitegiak izango dira (TRSPKLen 21.2 artikulua) kontratu hau prestatzean, esleitzean, interpretatzean, betetzean eta amaitzean sor daitezkeen auziak erabakitzeko eskudunak, eta bi aldeak borondatez jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mendean. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako foroei.

**1. ERANSKINA
PROPOSAMEN EKONOMIKOA
(...) LOTEA**

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:

Enpresaren bulegoen helbidea:

.....
Datu horiek Kontratatorako Oinarrizko Baldintzetan agertzen den eran frogatu ostean, hau adierazten dut:

1. BIZIKLETA HIRI EREMUETAN ERABILTZEKO IKASTAROAK EMATEKO kontratua esleitzeko antolatutako LEHIAKETAREN berri izan dut, eta CADEMen Kontratatzailearen Profilean argitaratutako iragarkia ezagutzen dut.
2. Baldintza Teknikoen Pleguak, Oinarrizko Baldintzenak eta gainerako dokumentazioa aztertu eta ezagutzen dut.
3. Kontratatorako Oinarrizko Baldintzen Pleguaren lehen klausulan aipatzen diren legezko eta arauzko testuak ere ezagutzen ditut.
4. Horiekin ados nago eta borondatez, bere osotasunean eta aldaketarik gabe onartzen ditut 2. eta 3. ataletan adierazten diren legezko eta arauzko dokumentu eta testuak.
5. Aipatutako kontratuaren (.) lotea gauzatzeko konpromisoa hartzen dut, eta prestatuko den pertsona bakoitzeko prezio unitarioa hauxe izango da: ... euro; gehi BEZari dagokion ... euro. Beraz, guztira ... euro.

[...]n, 2013ko []aren(e)an.

[Enpresaren/lizitatzailearen izena].
Ahalordez.

2. ERANSKINA

LIZITATZAILEAREN ARDURA-ADIERAZPENA, ADMINISTRAZIO PUBLIKO EKIN KONTRATATZEKO DEBEKURIK EZ DUELA EGIAZTATZEKO

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:

Enpresaren bulegoen helbidea:

.....

ADIERAZTEN DUT: Egiaztatzen dut ez nik, ez ordezkatzen dudan merkataritza-sozietateak ez dugula kontratatzeke debekurik, Sektore Publikoko Kontratuen Legearen Testu Bateginaren (30/2007 Legea) 60. eta 61. artikuluetan araututakoaren arabera. Halaber, indarrean dauden xedapenekin bat etorritik, egiaztatzen dut enpresak egunean betetzen dituela zerga-betebeharrak eta Gizarte Segurantzarekikoak. Hori guztia egiaztatzen duten agiriak eta dokumentuak aurkezteko konpromisoa hartzen dut kontratua formalizatu baino lehen, horren esleipenduna izango banaiz.

[...]n, 2013ko []aren(e)an.

[*Enpresaren/lizitatzaillearen izena*]
Ahalordez

3. ERANSKINA

BANKU-ABALAREN EREDUA (BEHIN BETIKO BERMEA)

[...] bankuak, (aurrerantzean, “**Bankua**”) eta haren izenean eta ordezkartzan [...], egintza hau egiteko bezainbat aginpide duenak, [...] notarioaren aurrean, [...] protokolo-zenbakiarekin, [...] egunean emandako ahalmenaz baliaturik, eta aldatu ezta kendua ere izan ez dena.

ABALATZEN dio [...] sozietateari (aurrerantzean, “**Sozietatea**”), lehen eskarian eta era solidarioan, .I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duenari, [...], *CADEMen* aurrean (aurrerantzean, “**Onuraduna**”), I.F.K.: [...], eta [...] helbidea duena, [...] euroko gehieneko zenbatekoraino (aurrerantzean, “**Bermatutako zenbatekoa**”), [kontratuaren izena idatzi] xedea duen kontratua modu egokian garatu eta gauzatzeko, [...] datarekin Sozietateak eta Onuradunak sinatutako kontratua, eta Bankuak ezagutzen duela adierazita.

Abalaren baldintzak hauexek dira:

- (i) Bankuak berariaz uko egiten die ondasunen ordenari, eskusioari eta zatiketari; baita defentsa agertarazteko era guztiei ere.
- (ii) Abal honek izaera abstraktua du: beraz, Onuradunak ez du zertan adierazi edo justifikatu bermea gauzatzeko dituen arrazoiak, eta bermearen kontura ordainketaren eskariaren aurrean, Bankuak ezin izango du oztopo edo eragozpenik jarri, Sozietateak jar ditzakeen eragozpenak edozein direla ere.
- (iii) Onuradunak eskatzen duen diru kantitatea ordaindu beharko dio Bankuak bost (5) egun naturaleko gehieneko epean, idatziz edo beste modu batez [...] helbidera egiten den eskariaren egunetik kontatzen hasita.
- (iv) Onuradunak eskatuko duen diru-kantitatea ordainketa batean edo bitan egingo dio Bankuak, onuradunak esango dion eran; betiere Bermatutako zenbatekoa gainditzen ez bada.
- (v) Onuradunak emandako bankuaren kontu-korrontean egingo dira ordainketak, kenketarik gabe, honako arrazoiak hauengatik: zergak, eskubideak, karguak, konpentsazioak, erreklamazioak, eta oraingo edo etorkizuneko kenketa edo atxikipenak.
- (vi) Abal honen iraupena mugagabea izango da, Onuradunak baliogabetzeko baimena eman arte, idatzizko adierazpen baten bidez.
- (vii) Berme hau Espainiako zuzenbidearen arabera arautzen da. Gerta daitezkeen auziak erabakitzeke bi aldeak jartzen dira Bilboko epaitegi eta auzitegien mende. Era berean, berariaz egiten diete uko erabilgarri izan ditzaketen bestelako jurisdikzioei.

Berme hau Bermeen Erregistro Ofizialean erregistratu da, [...] zenbakiarekin, 20[](e)ko []aren(e)an.

[Lekua eta eguna]

[Erakundearen izen soziala]

[Ahaldun(ar)en sinadura]

4. ERANSKINA

EKONOMIA JARDUEREN GAINEKO AITORPENAREN EREDUA

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:

Enpresaren bulegoen helbidea:

.....

Nire erantzukizunpean, adierazten dut:

Tokiko zergei buruz indarrean dagoen araudiaren eta, zehazki, Ekonomia Jardueren gaineko Zergaren araupenaren arabera, jarraian zerrendatzen diren epigrafeetan zerga horren matrikulan alta ematera behartuta dago enpresa, eta ez du bajarik hartu zerga horretan:

.....
.....
.....
.....
.....

[...]n, 2013ko []aren(e)an.

[Enpresaren/lizitatzaillearen izena]

Ahalordez

5. ERANSKINA

ZEHAZTAPEN TEKNIKOEN TXOSTENA

A. PARTE HARTZEN DUTEN ERAGILEAK

Ikastaroetan, hasieratik bukaera arte, honako eragile hauek parte hartuko dute:

- Eskatzailea. CADEMi ikastaroa eskatzeko ekimen hartzen duena. Eskatzailea erakunde bat (udala, enpresa, etab.) edo pertsona fisikoez osatutako talde bat (gutxienez 6) izan daiteke. Ikastaroa egiten den bitartean, hark hautatuko duen pertsona arduradun bat izango da bere ordezkaria.
- Kontratista. Hornitzailea da, CADEMek kontratatuko duena, eta EEEn (Energiaren Euskal Erakundea) izenean ikastaroak emango dituena. Ikastaroa egiten den bitartean, hura emateko bidaliko dituen begiraleen bidez izango da ordezkaria.
- Ikasleak. EAEko udalerrietan erroldatuta dauden pertsonak; parte hartzeko gutxieneko adina 14 urtekoa da.
- CADEM. EEEn izenean ikastaroak antolatu eta kontratatzen dituena.

B. IKASTAROEN GARAPENA

Hurrengo paragrafoetan ikastaroaren nondik norako osoa deskribatzen da, ikastaroa eskatzen denetik amaitu arte:

1. Ikastaroaren eskaera
Arduraduna: Eskatzailea

Eskatzaileak ikastaroaren eskaera posta elektronikoaz bidaliko dio CADEMi, eta eskabidean, gutxienez, honako datu hauek azalduko ditu:

- Eskatzailearen identifikazioa
- Ikastaroa emateko eguna eta ordua
- Aurreikusitako ikasle kopurua
- Ikastaroa emateko lekua
- Eskatzen den ikastaro mota:
 - Ikasgelarik gabe: Ikastaro osoa kalean egiten da
 - Ikasgelarekin: Ikastaroari dagokion atal teorikoa ikasgela batean ematen da, erakunde eskatzaileak jarriko duena
- Ikastaroa emango den hizkuntza
- Harremanetarako pertsona

Ikastaroaren eskaera, gutxienez, bi (2) aste lehenago egin beharko da.

Ikastaroan parte hartuko duen gehieneko ikasle kopurua hogeita lau (24) izango da.

Ikastaroan parte hartuko duen gutxieneko ikasle kopurua sei (6) izango da.

2. Kontratatari informazioa ematea eta prestutasuna egiaztatzea
Arduraduna: CADEM

CADEMek posta elektronikoz jakinaraziko dio eskatzaileari ikastaroa emateko prestutasuna (eguna eta ordua). Era berean, eskatzaileak ikastaroa eskatzeagatik kontratista, begirale, ikasle eta CADEMekin hartzen dituen erantzukizunez informazioa emango dio CADEMek.

CADEMek aurreikusten den ikastaroaren berri emango dio kontratatari, honako datu hauek helaraziz:

- Eskatzailearen identifikazioa
- Ikastaroa emateko eguna eta ordua
- Aurreikusitako ikasle kopurua
- Ikastaroa emateko lekua
- Eskatzen den ikastaro mota:
 - Ikasgelarik gabe: Ikastaro osoa kalean egiten da
 - Ikasgelarekin: Ikastaroari dagokion atal teorikoa ikasgela batean ematen da, erakunde eskatzaileak jarriko duena
- Ikastaroa emango den hizkuntza
- Harremanetarako pertsona
- BEHIN-BEHINEKO BEGIRALE KOPURUA, kontratistak ikastaroa emateko eduki behar duena

Bidali behar den begirale kopurua erabakitzea CADEM-en ardurara izango da. Horretarako, honako taula honetan oinarrituko da:

6 eta 8 ikasle artean	Begirale bat
9 eta 16 ikasle artean	2 begirale
17 eta 24 ikasle artean	3 begirale

3. CADEMi ikastaroaren behin betiko egiaztatpena
Arduraduna: Eskatzailea

Eskatzaileak ikastaroaren behin betiko datuak lau (4) eguneko gutxieneko aurrerapenez konfirmatu beharko ditu.

Aurretiaz emandako datuez gain, eskatzaileak honako informazio hau ere aurkeztu beharko du:

- Ikasleen behin betiko kopurua
- Erakunde eskatzaileak hautatutako pertsona arduradunaren izena eta harremanetan jartzeko bidea (aurrerantzean, eskatzailearen arduraduna)

4. Kontratatari ikastaroaren behin betiko egiaztatpena
Arduraduna: CADEM

CADEMek ikastaroaren behin betiko datuak hiru (3) eguneko gutxieneko aurrerapenez konfirmatu beharko ditu.

Aurretiaz emandako datuez gain, CADEMek honako informazio hau ere aurkeztu beharko du:

- BEHIN BETIKO BEGIRALE KOPURUA, kontratistak ikastaroa emateko eduki behar duena
- Ikasleen behin betiko kopurua
- Erakunde eskatzaileak hautatutako pertsona arduradunaren izena eta harremanetan jartzeko bidea (eskatzailearen arduraduna)

5. Ikastaroak emateko behar den materiala

Arduraduna: Kontratista/Eskatzailea

Kontratistaren ardura izango da ikastarorako behar den materiala prest edukitzea, betiere CADEMek oniritzia emanez, eta gutxienez honako hauek izango dira:

- EEEren logotipoa izango duten ikusgarritasun handiko txalekoak
- CADEMek ontzat emango dituen beste batzuk

Kontratua sinatzean, aipatutako materialaren lote bat jaso ahal izango du kontratistak, ikastaro batzuetan erabiltzeko.

Ikastaroa behar bezala emateari begira, eskatzailearen ardura izango da gainerako material hau eskuragarri izatea:

- Bizikletak:
 - Ikasle bakoitzak bizikleta bat eduki beharko du
 - Bizikletak eskatzaileak jarri beharko ditu. Bizikletarik ez badu, ikasleei horren berri eman beharko die, bakoitzak berea eraman dezan
- Beste batzuk: Ikasgela (baldin badauka), ordenagailuak, proiektoreak, kaskoa (hala badagokio), etab. Horiek guztiak eskatzaileak jarri beharko ditu

6. Ikasleekiko harremanak

Arduraduna: Eskatzailea

Eskatzailea arduratuko da ikastaroari buruzko informazioa ikasleei bidatzeaz

Bereziki, eskatzaileak bakoitzak bere bizikleta eraman behar duen ala ez jakinaraziko die ikasleei.

7. Ibilbidearen diseinua

Arduraduna: Kontratista

Ikastaroa emateko egokia den ibilbidea diseinatzea kontratistaren ardura izango da; ibilbidearen hasiera eta bukaera zehaztea erakunde kontratatzailearen zeregina izango da.

8. Ikastaroa eman aurreko harrera

Arduraduna: Eskatzailea

Ikastaroa hasi aurretik, gutxienez 15 minutu lehenago, ikasleak adierazitako lekuan eskatzailearen arduradunarekin bilduko dira.

Ikasleei biltzeko deia egiteaz eskatzailea arduratuko da, eta aipaturiko 15 minutuko aurrerapenaz baino lehenago biltzeko dei egin diezaieke.

Atal teorikoa emateko ikasgelaren bat behar izanez gero, ikasleak biltzeko tokian egon beharko da ikasgela.

Ikasleak heltzen direnerako, ikastaroa emateko beharko den material guztia prest edukiko du eskatzaileak.

Eskatzailearen arduradunak ikasleei ikasleen fitxa bana emango die (EEEren eredua).

Ikasleek ezin izango dute ikastaroa egin, baldin eta aurretik dagokion ikasleen fitxa bete eta eskatzailearen arduradunari ematen ez badio.

Ikasleen fitxak jaso eta ondoren, eskatzailearen arduradunak ziurtatu beharko du ikasle guztiek ikastaroa egiteko behar duten material guztia eskura dutela; baita begiraleak hartzeko eta ikastarori ekiteko prest daudela ere.

Ikastaroa hasi aurretik, eskatzailearen arduradunak ikasleen fitxak emango dizkie begiraleei.

Ikastaroa abian dela, eskatzailearen arduradunak ikastaroaren fitxa (EEEren eredua) beteko du, eta ikastaroa amaitutakoan, kontratistari emango dio sinatuta.

9. Ikastaroaren garapena

Arduraduna: Kontratista

Ikastaroa hasiko diren pertsona guztiek ikasleen fitxa bete dutela ziurtatu beharko du kontratistak.

Ikusgarritasun handiko txaleko bana emango die ikasleei kontratistak. Txaleko horiek guztiek EEEren logotipoa eramango dute.

Era berean, kontratistaren begirale guztiek ikusgarritasun handiko txaleko bana eramango dute soinean, EEEren logotipoarekin eta ikasleen txalekoen aldean, beste kolore batekoa. Txaleko eredu biak CADEMek jarriko ditu erabiltzaileen eskura aurretiaz.

Kontratistak, bidaliko dituen begiraleen bidez, ikastaroa emango du, eta ikastaroaren gutxienezko iraupena 150 minutukoa izango da.

Ikastaroaren hasieran, kontratistak argi eta garbi azalduko dizkie ikasleei honako aspektu hauek:

- Energiaren Euskal Erakundeak antolatutako doako ikastaro bat egingo dutela
- Bizikleta ohiko garraiobide moduan erabiltzeko sustatzea dela ikastaroaren helburua

Emanez gero, ikastaroaren atal teorikoak ikasgelan 45 eta 60 minutu artean iraungo du.

Kalean egingo den ikastaroaren atala, taldeka egingo da, eta talde horiek, gehienez, begirale batek eta zortzi (8) ikaslek osatuko dute.

Ikastaroak azalpen teorikoak eta ariketa praktikoak izango ditu, eta gutxienez honako eduki hauek eman beharko dira:

- Ibilbideari ekin aurretiko egiaztapenak (gurpilen presioa, galgak eta abar)
- Zirkulazioan segurtasunari buruzko azalpenak
- Oinezkoekin eta beste garraiobide batzuekin bideak partekatzea
- Bizikletaren segurtasuna
- Bidegorri edo bizikletarako bide, bide partekatu, bideko gurutzagune eta abarretik joatea
- Biribilguneen inguruko sarrera, ibilaldia eta irteera
- Zenbait eratako gurutzaguneak (semaforoekin eta semafororik gabe, bide eman seinaleak dutenak eta abar)
- Bi lerroko kaleetan ezkerretarako bidea egitea (bi noranzkoa eta batekoa)

10. Ikasturtearen amaiera

Arduraduna: Eskatzailea

Kontratatik ikastaroa eman eta gero, eskatzailearen arduradunak ikasle guztiei asebetetze mailari buruzko inkesta bana emango die (EEEren eredia).

Aipatutako inkestak bete ondoren, eskatzailearen arduradunak begiraleei emango dizkie, baita sinatuta egongo den ikastaroaren fitxa ere.

Dokumentazio hori entregatu eta gero, ikastaroa amaitutzat emango da, eta kontratatik, begiraleen bidez, honako dokumentazio hau izango du eskura

- Ikasle guztien fitxak
- Asebetetze mailari buruzko inkestak
- Ikastaroaren fitxa

Ikastaroaren fitxa eta ikasleen fitxak (ikasle bakoitzeko bat) izango dira kontratatik eduki beharko dituen dokumentuak, ikastaroaren zenbatekoa erreklamatu eta kobratu ahal izateko CADEMen aldetik.

11. Ikastaroaren ondorengoa

Arduraduna: Kontrartista

Ikastaro bakoitzaren bukaeran, kontratatik ikastaroaren garapenez txosten bat prestatuko du CADEMENTzat, bertan, honako alderdi hauek azalduko dira:

Euskarri informatikoan:

- Parte hartu duten ikasleen zerrenda (Excel orria, EEEren eredia, ikasleekin harremanetan jartzeko datu hauekin: izena, NANA, helbidea, harremanetarako telefonoa eta posta elektronikoen helbidea)

Paperean eta PDFen:

- Ikastaroaren fitxa (EEEren eredia). ikastaro bakoitzeko fitxa bat

- Ikaslearen fitxa (EEEren eredu). ikasle bakoitzeko fitxa bat
- Ikastaroan parte hartu dutenen asebetetzeari buruzko inkestak (EEEren eredu). ikasle bakoitzeko inkesta bat
- Ikastaroaz aipatzea merezi duen beste edozein gorabehera edo oharra

Bereziki, adierazitako dokumentuen artean, honako hauek garrantzi handikoak dira:

- Ikastaroaren fitxa. Kontratatari ikastaro jakin baten ordainketa eskatzea ahalbidetzen duen dokumentua da. Dokumentu hori eskatzailearen arduradunak sinatu beharko du, baita ikastaroan parte hartuko duten begirale guztiek ere.
- Ikaslearen fitxak. Kontratatari ikastaro jakin bat egin duen ikasle kopurua justifikatzea ahalbidetzen duten dokumentuak dira. Fitxa hori bete eta sinatu duten ikasleei baino ez die ikastaroa emango kontratistak.

12. Ikastaroen fakturazioa

Arduraduna: Kontratista

Hilero, hilabetea igarota, hil horretan emandako ikastaroei buruzko txostenak bidaliko dizkio kontratistak CADEMi, dagokien fakturarekin batera, Plegu honen karatulako “S” Atalean xedatzen eta azaltzen den bezala.

Benetan prestakuntza jasotzen duten ikasleen kopuruaren arabera hitzartutako prezioari jarraiki fakturatuko dio CADEMi kontratistak (ikaslearen fitxa entregatuta daukatenak).

Ikastaro zehatz batean, eskatzaileak behin betiko konfirmatutako ikasle kopurua baino ikasle gutxiago izango balira, kontratistak egiaz prestatutako ikasle kopuruari dagokion prezioa fakturatuko du. Edozein kasutan, prezio hori ez da inoiz izango ikasleei prestakuntza emateko behar diren begiraleei lotutako gutxieneko ikasle kopuruari dagokiona baino gutxiago, hiru (3) eguneko aurrerapenez CADEMek emango dituen datuetan oinarritutako begiraleak, hain zuen ere.

Horiek horrela, CADEMek ordainduko dituen gutxieneko prezioak hauexek dira:

- Begirale 1: 6 ikasleri dagokion prezioa
- 2 begirale: 9 ikasleri dagokion prezioa
- 3 begirale: 17 ikasleri dagokion prezioa

13. Diplomen bidalketa

Arduraduna: CADEM.

Kontratistak CADEMi dagokion dokumentazio guztia bidali ondoren, ikastaroa egin izana egiaztatzen duen diploma bana igorriko die ikasleei CADEMek.

C. IKASLEAK ERAKARTZEA

Kontratatik egokitzat joko dituen bide guztiak erabiliko ditu ikasleak erakartzeko edo ikastaroak antolatzeko; betiere, ikasle horiek onuradunak izateko baldintzak betez.

Kasu horietan, CADEMEk antolatu edo hartuko dituen ikastaroetan bezala, B atalean adierazitakoaren arabera jokatuko da.

6. ERANSKINA

ENPRESA LIZITATZAILEAREN OINARRIZKO DATUAK

Enpresa lizitatzaillearen izena	
IFK / IFZ Jarduera nagusia	
Helbide soziala	Zentrala:
	Bulegoak EAEn:
Harremanetarako	Harremanetarako pertsona:
	Helbidea:
	Tel.:
	Faxa:
Langile-kopurua	Guztira:
	EAEn:
Negozio bolumena	Guztira:
	EAEn:
Eusko Jaurlaritzaren Kontratisten Erregistro Ofizialaren Ziurtagiria (bai/ez) Akziodunen edo enpresa taldearen izena Kudeaketa sistemen ziurtapena (ISO, UNE edo baliokideak)	

"CADEMek, Bizkaia plaza eraikina, Urkixo zumarkalea, 36, 1. solairua, 48011 Bilbon helbidea duenak, hauxe jakinarazten du: hornitzaileak emandako datu pertsonalak edo geroago sortuko direnak fitxategietan sartuko direla eta CADEMen ardurapean geratuko direla.

Datu horiek kontratazioa aztertu eta kudeatzeko erabiliko dira, eta hala badagokio, kontratazio horrekin zerikusia duten jarduerak gauzatzeko, baita horren ondorioz sor litezkeen harremanak bideratu eta aurrera eramateko; betiere, aplikagarria izan daitekeen araudia betez.

Nolanahi ere, hornitzaileak datu horiek ikusteko, aldatzeko, ezabatzeko eta inori ematen ez uzteko eskubideak erabil ditzake, datu pertsonalak babesteko legeriak xedatutakoari jarraiki. Horretarako, goraxeago aipatzen den CADEMen helbidera idazki bat bidali behar du, bertan nor den behar bezala egiaztatuz.

Aurrekoaz gain, hornitzaileak honako konpromiso hau hartzen du: eskaintza batekin, edo hala badagokio, geroxeagoko kontratuarekin, zerikusia duen edozein pertsona fisiko/juridikoren datu pertsonalak CADEMi eman aurretik, pertsona fisiko/juridiko horri aurreko paragrafoetan azaltzen diren testuen edukiaren eta gainerako eskakizunen berri emateko. Horretaz gain, CADEMi datu pertsonalak era zuzenean emateko aplikagarriak izan litezkeen araudi guztiak betetzeko konpromisoa hartzen du, CADEMe bestelako jarduera gehigarri egin beharrik gabe. Era berean, CADEMi emandako datuetan gerta litezkeen aldaketa edo ezabaketan berri emateko konpromisoa hartzen du".

7. ERANSKINA
ENPRESAK EMANDAKO INFORMAZIOA KONFIDENTZIAL IZENDATZEKO
EREDUA (hautazkoa aurkeztea)

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:

Enpresaren bulegoen helbidea:

ADIERAZTEN DU

(*) zenbakidun kontratazio-espeditako (*gutun-azala zein den zehaztu*) gutun-azalean jasotako agirietatik, jarraian aipatzen diren informazioak eta eskaintzako alderdiak konfidentzialak direla, merkataritzako sekretuekin edo sekretu teknikoekin lotura izateagatik. Hauek dira, beraz, agiri konfidentzialak:

Adierazten du, baita ere, agiri horiek konfidentzialak direla ondoko arrazoi hauengatik:

(Lekua, eguna eta sinadura)

(*) Plegu honetako karatulan dagoen espediente zenbakia idatzi.

8. ERANSKINA ALDI BATERAKO ENPRESA ERATZEKO KONPROMISOA

Alde batetik,..... jaunak/andreak,
zk.ko NAN duenak,.....ren ordezkartzan
(IFK.....,sozietate helbidea:
telefonoa....., faxa.....

Bestetik,..... jaunak/andreak, zk.ko
NAN duenak,.....ren ordezkartzan
(IFK.....,sozietate helbidea:
tel.efonoa....., faxa.....

ADIERAZTEN DUTE

- I. Ordezkatutako enpresek [...] lehiaketan batera eta bat eginik parte hartzeko konpromiso hartzen dutela, eta esleipendunak izanez gero, [...] izeneko aldi baterako enpresa eratzera obligatzen direla.
- II. Aldi baterako enpresa osatuko luketen enpresa bakoitzaren partaidetza hauxe izango litzatekeela:
 - [...]
 - [...]
- III. Kontratazio-organoaren aurrean ordezkatzeari begira, hau izenpetzen dutenek hauxe aukeratu dutela:.....
jauna/andrea, adinez nagusia,,.....zk.ko NAN
duena,.....kalea, zk.an bizi
dena, telefonoa.....eta faxa....., eta beraz, ABE edo
UTERen ordezkartza osoa izango duela.

.....(e)n, 20[...]koaren ... (e)an

[...]

[...]

Ahalordez

Ahalordez

9. ERANSKINA

KONTRATUA ALDATZEKO ARRAZOI KONBENTZIONALAK

Kontratua honako arrazoi honegatik alda daiteke:

- Eman beharreko ikastaroak gehitu, murriztu edo kentzeagatik, kontratazio prozedurari ekiten zaionean zehaztasun osoz finkatzea ezinezkoa bada, eta lehiaketa honen helburua betetzeko beharrezkoak badira.

10. ERANSKINA

GIZONEN ETA EMAKUMEEN ARTEKO BERDINTASUNA SUSTATZEKO KONPROMISOAREN ADIERAZPENA

Izen-abizenak:

Nortasun Agiri Nazionalaren zenbakia:

Ordezkatzen duen enpresa:

Enpresaren Identifikazio Fiskaleko Kodea:

Enpresaren bulegoen helbidea:

[...] espediente zenbakia duen LEHIAKETARI dagokionez,

ADIERAZTEN DU

Ordezkatzen duen pertsonak edo erakundeak ez du zigor larririk jaso, ezta kondenarik ere, erabaki administratiboaren bidez edo epai irmoaren bitartez, langileen estatutuaren edo aplikagarria den lan itunaren berdintasunari lotutako betebeharrak ez betetzeagatik.

Ez dagoela zigortuta, eta, beraz, ez du debekurik laguntza eta diru laguntza publikoen onuraduna izateko, 4/2005 Legearen 24,2 artikulua araberako, otsailaren 18ko Gizonen eta Emakumeen Berdintasunaz diharduena.

3/2007 Lege Organikoan xedatutakoa betetzen duela, martxoaren 22ko Gizonen eta Emakumeen Berdintasun Eragingarriaz diharduena.

KONPROMISO HAU HARTZEN DU

Otsailaren 18ko Gizonen eta Emakumeen Berdintasunaz diharduen 4/2005 Legeak xedatzen dituen betebeharrak bere gain hartzeko, administratiboki laguntza jaso, harekin kontratuak egin edo lankidetzan aritzen diren erakundeei dagokienez:

- Honako printzipio hauek betetzeko konpromisoa: tratu berdina, aukera berdintasuna, dibertsitatea eta ezberdintasuna errespetatzea langile guztien artean (3. artikulua).
- Haien jardunetan genero-ikuspegi integratzeko, ekintza positiboa bultzatzeko, sexuaren araberako rola eta estereotipoak desagerrarazteko konpromisoa (3. artikulua).
- Zuzendaritza-organoetako eta organo kolegiatuetako kide izateko pertsonak izendatzerakoan, izendatutakoaren artean trebakuntza, gaitasun eta prestakuntza egokia duten emakumeen eta gizonen ordezkariak orekatua izateko konpromisoa (23. artikulua).
- Estatistika eta azterlanak prestatzerakoan, genero-ikuspegia kontuan hartzeko konpromisoa, sexuaren araberako datuak bildu eta aurkeztuz (16. artikulua).
- Sortzen dituzten dokumentu eta euskarrietan hizkera eta irudi sexista ez erabiltzeko konpromisoa (18.4 artikulua).

Eta horrela jasota gera dadin, adierazpen hau sinatzen du,, 20..,, ...

Sinadura